uztarria
AZPEITIKO HERRI ALDIZKARIA

Jose Mari Bastidari 'elkarrizketa' (3-5)

Hilabetekaria • 2003ko martxoa • V. urtea • 38. zenbakia • www.uztarria.com

Denok gara Egunkaria

EUTSI EUSKARAZKO PRENTSARI!

Azpeitiarrak mobilizatuta 'Egunkaria'-ren itxiera dela eta (12-13)

AZPEITIAN

Baiolegi Mendizaleak Orkatz Zuhatz Ikaste

korrika
LAGUNTZAILEA

...eta gainera aprobetxa itzazu txartelak, Euskal Herri osoan, emango dizkizun abantailak

Onura guztiak aprobetxatu ahalizateko bete itzazu orriak eskatzen dituen datuak eta korrika laguntzaile txartela jasoko duzu.

40 baino gehiago dira korrika laguntzaileei beherapenak eskainiko dizkietenak.

- Argia Astekaria
- Biarritz Culture (Miarritze)
- Eihartzea Kultur Elkartea
- Euskaldunon Egunkaria
- Garazikus Kultur Elkartea (Donibane Garazi)
- Haize Berri Kultur Elkartea
- Iparraldeko Pilotako Liga
- Laudioko Olimpus Arropa Denda
- Mattin Megadenda (Baiona)
- Osasuna Futbol Elkarteko Dendak (Iruñea)
- Uhaitza Kultur Elkartea
- Amurrioko Arregi Argazki Denda
- Iris Sport
  Alda. Recalde, 64 bis Bilbo
  Autonomia, 7 Donostia
  Barrenkalea, 34 Durango
  Muzategi, 1 Eibar
  Olagibel, 26 Gasteiz
  Victor Chabarri, 12 Portugalete
- Tolosako Aralar Kirolak
- Florida Zinemako "Bocatta" (Gasteiz)
- Agurain Kirolak
- Aldo Deportes
- Arriaga Megadenda (Gasteiz)
- Bilintx Megadenda (Donostia)
- Urretxindorra Megadenda (Bilbo)
- Xalbador Megadenda (Iruñea)
- Xalem Megadenda (Iruñea)
- Borda (Bilbo)
- Gasteizko Ekhi Mendiko Arropa Denda
- Gasteizko Mendia Optika
- Zinkunegi Optika (Donostia)
- Aguraingo Tura Kirol edo Turismo Aktiboko Enpresa
- Aguraingo Harresi Zinema
- Arrasateko Alai Zinema
- Beasaingo Usurbe Zinema
- Bilboko Mikeldi Zinema
- Eibarko Rialto Zinema
- Eibarko Unzaga Zinema
- Gasteizko Florida Zinema
- Gasteizko Gundi Zinema
- Gasteizko Mikeldi Zinema
- Golem Zinemak (Lizarra)
- Golem Zinemak (Iruñea)
- L'Atalante Zinema (Baiona)
- Tolosako Leidor Zinema
- Zarauzko Modelo Zinema
- Zumaiako Aita Mari Zinema

Laguntzaileak

Egunkaria · eitb · Euskalerria Irratia · Herri Irratia Radio Popular · Bizkaia Irrat · Argia · Radio Popular · Noticias · gara · le journal

RB
BASTIDA SUKALDEAK S.L.

SUKALDEKO ALTZARIAK
BAINUGELAK
HORMAN SARTUTAKO ARMAIRUAK

PEREZ ARREGI,9 Tfnoa. eta Faxa: 943 15 05 10

Ez egon geldiri

mugi
kirolak

Enparan kalea 8. Tel. 943 - 151004

Azpeitiko Emakumeen Taldearen kanpaina berria (18-19)

Sokamuturra: soka egitearen langintza (32-33)

Klik! Astelehen Inauteria Orkatzen (36-38)

Zu zeu! Esteban Campos, kalderero (42)

Jose Mari Bastida alkatea

Hemezortzi urte daramatza Jose Mari Bastidak Azpeitiko alkate. Baina aurten ez da izango Azpeitiko EAJren alkategai. Hilabete gutxi gelditzen zaizkio alkate bezala Bastidari

"Ez aurkezteko erabakia nirea izan da"

LEIRE LARRAÑAGA

Nerea Uranga

Bere bulegoan hartu gaitu Jose Mari Bastidak, batzar aretoaren ondoan. Azkenean, nolabaiteko elkarrizketa egiteko hartu ere.

• Zergatik hartu duzu alkategai ez izateko erabakia?

Orain ez dut hartu erabakirik, 1999an hartutako erabakia bete dut.

• Asko kostatu al zaizu?

Batere ez. Aurretik hartutako erabakia zelako.

• "Minduta" hartu al duzu erabakia?

Esan dudan moduan lehen hartutako erabakia zen, orain hitza bete dut, nahiz eta une honetan sekula baino proiektu gehiago izan eskuartean eta indartsu aurkitu neure burua.

• Baztertuta sentitu al zara Azpeitiko EAJren aldetik?

Nire erabakia den aldetik, ez daukat EAJko nire kideen aldetik baztertuta sentitzeko arrazoirik.

• Zer dago erabaki horren atzetik? Gestioa? Jende berriaren apustua? Politika egiteko era?

Erabaki horren atzean ez dago ezer, nire erabakia izan da hautagai moduan ez aurkeztea. Eta alderdiak erreleboa bultzatzea logikoa eta ona da bai alderdirentzat baita herriko etorkizunarentzat ere.

• Zergatik ez duzu egin apustua EAJko batzarra irabazteko?

Hartutako erabakia zelako, beste kontu bat da nire alderdikide batzuek nire izena aurkeztu izatea. Nire aldetik, nire hitza betetzeagatik, uko egin diot hautagai izateari.

• 1999an zergatik aurkeztu zinen, nahiz eta Gipuzkoako Buru Batzarra kontra eduki?

Azpeitiko Alderdi Jeltzalearen mahaiak berak eskatu eta batzarrak gehiengo batez hala erabaki zuelako. Ondoren, azpeitiarrek ere ni beraien alkatea izatea nahi izan zuten.

• Segituko al zenuke Azpeitiko EAJ eta Gipuzkoako Buru Batzarra alde izanez gero?

Azpeitiko eta Gipuzkoako EAJ-PNVrekin oso harreman ona dut. Esan dudan bezala, erabakia nirea izan da, eta beste guztia soberan dago.

• EAk orain ez zuen nahi zu alkategai izatea.

Ez orain eta ezta lehen ere. Lehen, bazekitelako ni lehen hautagai moduan aurkeztutako bakoitzean, beti argi eta garbi irabazi izan duela nire alderdiak.

> "Ez aurkezteko erabakia aurretik hartuta zegoen, nahiz eta eskuartean sekula baino proiektu gehiago eduki eta indartsu aurkitu"

> "EAJ-PNVko kidea izan eta sentitzearen konpromisoa beti izan dut, eta, horregatik, sekula ez naiz independente sentitu"

• EAk zurekin gobernatu du azkeneko zortzi urteetan...

Nahiz eta bi alderdiek batera ez zuten joan nahi izan aurreko hauteskundeetan, gero gobernatzeko moduan bazkide gisa ondo funtzionatu dugu, eta harreman pertsonal ona izan dugu, gainera.

• Hemezortzi urte egin dituzu alkatetzan. Zeure dena dedikatu al diozu?

Dakidan guztia, nire esperientzia eta osasuna, dena eman dut.

• Nolakoa zen zure egun bat?

Goizean goiz hasi lanean eta gauean berandu arte jarraitu. Lanean jo eta ke igaro ditut hemezortzi urte Azpeitiaren eta azpeitiarren alde.

• Zer ikasi duzu?

Jendea estimatzen eta jendearengan sinesten.

• Dedikazio horretan zerbait kontatzeko?

Behin Erromara joan ginen Aita Santua bisitatzera eta orduan ere azpeitiarren aldeko konpromiso bat lortu nuen gurekin batera etorri zen politikari batengatik. Honela esan zidan: "Joe, Joxe Mari, Erroman eta Aita Santuaren aurrean ere ezin al duzu Azpeitia ahaztu?".

• Lan zaila al da alkate izatea?

Ni bezalako bokaziodun alkate batentzat, Azpeitia bihotzean daraman batentzat, Azpeitiko alkatea izatea gauzarik handiena da.

• Garai hau luzea egin al zaizu?

Ez, nire inplikazio eta ilusioei entzunda denbora azkarregi igaro dela esango nuke.

• Ez al dira urte gehiegi izan?

Hori azpeitiarrei galdetu beharko diezu, euren konfiantzari esker izan naiz-eta alkate hemezortzi urteetan.

• Hemezortzi urte alkatetzan izanda, alkatearen boterea, ahalmena, noraino heltzen da?

Bada, egunetik egunera azpeitiar guztiekin gero eta konpromiso handiagoa hartzera heltzen zara.

• Itxura batean, erabaki denak zure esku egon dira, oso pertsonalizatua izan duzu alkatetza... Horrela izan al da?

Enpresa baten bezala, azken hitza eta erabakiak alkatearenak dira, nahiz eta gauza garrantzitsuak udalbatza osoan erabakitzen diren.

• Alderdiarekiko independente itxura eman izan duzu. Zenbaiteraino da egia, zenbaiteraino fiktizioa?

Ezkutuan derrigorrez ibili behar zen garai haietatik ni EAJko kidea izan naiz, eta beti hala sentitu izan naiz. Konpromiso hori beti izan dut nirekin; hau da, EAJ-PNVko kidea izatea eta sentitzea, horregatik, sekula ez dut independente sentitu neure burua, eta ezta nahi ere.

• Alkatearen lanaren emaitzan zenbaterai-

Erantzunik gabeko galderak

Uztarria herri aldizkariak, Jose Mari Bastida alkateari elkarrizketa zabala egiteko nahia azaldu izan dio hiru aldiz, eta azkenean hitzordua lotu zen. Bastidak jarri zuen baldintzetakoa izan zen aurretik galderak pasatzea. Uztarriak prestatu zituen batzuk, baina, jakina, elkarrizketan zehar beste batzuk egitekotan zen, erantzunen arabera; alegia, kazetaritza egiteko asmoa zuela Uztarriak. Baina iritsi zen elkarrizketaren ordua, eta Bastidak galdera batzuk soilik erantzuteko erabakia hartua zuen. Haren *arrazoia*: "Batzuek uste dute dena nik erabakitzen dudala, baina zenbait gairen inguruan erantzuteko aurretik batzordeetako arduradunekin hitz egin beharko nuke. Jendeak pentsatzen du Napoleon naizela, baina ez naiz". Gai horiez hitz egiteko hauteskundeen ondoren gelditzeko "asmoa" agertu zion Bastidak Uztarriari. Gainera, erantzun zituen galderak idatzita zeuzkan, eta hala pasatu zizkion Uztarriari. Hauek dira erantzun gabe gelditu diren galderak:

- **Arazo batzuk izan dituzu: inhabilitazioa, epaiketak, salaketak, erasoak...**
- **Herritar denen alkate izan behar badu alkateak, denen alkate izan zarela esan al dezakezu?**
- **Gatazka izan duzu herriko sektore batzuekin... Ez zara atzean geratu.**

- Gauza batzuk politizatu egin dituzu, baina Udalbiltza bezalako erakunde politiko garrantzitsua ez duzu asko bultzatu.
- Herri mugimenduarekin harreman onik ez duzu izan zuk edo zure politikak: ikastola, Azpeitian Gazteok Zer, Baite, Zaharra Berri... Zergatik uste duzu?
- Gauza batzuetan elkarlana bilatu ordez, zergatik landu dira alternatibak udaletik: Ludoteka, *Azpeitian Zer*-ren tirada eta maiztasuna, euskaran beste plan estrategiko bat...
- Herriko gazteekin (Gazte Asanblada lehen, AGZ gero...) enfrentamentuak ere izan ditu. Ez al litzateke errazagoa izango elkarlana bilatzea? Zergatik ez?
- Zergatik jarri izan diozu herri mugimenduari (euskara, gazteria, kultura...) ezker abertzalearen etiketa?
- Zergatik ez dago gazte lokal bat?
- Zergatik ez dago kultur etxe bat?
- Zer lorpen aipatuko zenituzke kultura arloan?
- Kultur arlotik, herri dinamikoagoa al da orain Azpeitia?
- Zenbateraino luke eragina zure politikak?
- Etxeak eta etxeak egin dira, baina Azpeitia apenas hazi den hogei urtean biztanleri aldetik.
- Etxeak eta etxeak egin dira, baina apenas egin diren babes ofizialekoak, legeak bestelakorik esan arren.
- Jende askok bi etxe ditu eta gazteek izugarrizko arazoak dituzte etxea erosteko. Zer egin duzu hori saihesteko?
- Etxeen kontua al da alkate batentzat arazorik garrantzitsuetakoa?
- Zenbateraino jarri dituzu herri interesak etxebizitzen arloan?
- Herri interesak kontuan hartu badituzu, etxegintza enpresetako buruei aurre egin diezuna edo ondo konpondu zarena izan zara?
- Etxeak eta etxeak egin dira, baina aparkaleku gutxi. Eta toki gutxi dago jada. Ez al duzu hurrengo alkatea alde horretatik nolabait hipotekatua uzten?
- Behar al du aparkaleku zabalik herriak? Eta zergatik ez dira egin?
- Lurpekorik behar al du? Behar badu, zergatik ez da egin?
- Zergatik ez da Alde Zaharra biziberritu?
- Alde Zaharra biziberritzeko garrantzitsuak dira, oinezkotzeaz gain, etxebizitzen eta aparkalekuan arloak, ezta?
- Alde Zaharra ez biziberritzeko zer interes daude?
- Alde Zaharra ez biziberritzean, herria nolabait *hiltzea* eta herri dinamika ez piztea leporatu izan zaizu.
- Zergatik horrenbeste interesa saihesbidea egiteko?
- Eta zergatik sartu proiektuan Xoxote aldekoa?
- Saihesbideak ez al du beste alternatibarik?
- Garraio publikoak, bidegorriak, lantokietatik irteera kontrolatuak... Zergatik ez dira jarri martxan neurri horiek trafikoa arintzeko? Eta zergatik ez errotondak lehenago?
- Zer egin behar duzu orain?
- Zer arlotan egingo zenuke lan?
- Erakunde publiko batean? Pribatuan?
- Izango al zinateke zinegotzi? Zer arlotakoa?
- Edo denetik (lanetik, politikatik) erretiratzeko gogoz zaude?

no eragin dezake norbere alderdi politikoak, zenbateraino norbere izaerak?

Oraintxe esan dudan moduan, beti alderdiko kide izan eta sentitu naiz. Hauteskunde guztietan hala aurkeztu naiz eta beti irabazi egin dugu. Orduan ez dauka zentzurik meritua nirea ala alderdiarena den esateak. Nire iritziz, meritua herriarena da, berak eman digun konfiantzagatik.

- **Zer eman dio Jose Mari Bastidak Azpeitiari?**

Lana, lana eta lana. Baita ilusioa, ideiak, konfiantza eta segurtasuna ere.

- **Eta zer Azpeitiak Jose Mari Bastidari?**

Lana egiteko gogoa, ilusioa, konfiantza eta ardura.

- **Hemezortzi urteen balorazioa eginda, zer nabarmenduko zenuke?**

Gaur egun azpeitiarrak gusturago eta hobeto bizi direla Azpeitian orain dela hemezortzi urte baino. Eta herritik kanpo Azpeitia orduan baino gehiago baloratzen eta errespetatzen dela.

- **Duela hemezortzi urte baino egoera hobean al dago Azpeitia?**

Zerikusirik ez dauka egoera batek bestearekin, baina nik erantzun beharrean, nahiago nuke galdera horri azpeitiarrek erantzutea.

- **Batik bat alkate gestorea izan zarela esan al daiteke?**

Herriko baliabideak kudeatzea eta herritarren behar nagusiak betetzea da alkate baten lan nagusia. Jendea gustura ikustea, eguneroko arazoak zuzentzea... hori da alkatearen lana.

- **Eta alkate politikoa izan al zara?**

Beti pentsatu izan dut hori nire alderdiaren lana dela eta ez alkatearena. Denen alkatea izateko, alkateak politika bere alderdiaren esku utzi behar du eta bera pertsona guztiei ahalik eta zerbitzu onena ematen oinarritu behar da.

- **Baina zeinek du garrantzia handiena alkatetzan: gestioak edo politikak?**

Erantzunda dago.

- **Zer herri uzten diozu hurrengo alkateari?**

Lan asko eta asko egin dugun herri zoragarri bat, proiektuz betetakoa eta ekonomi baldintza onetan dagoena.

- **Gabeziak?**

Azpeitiko herriaren arazo nagusietako bat, bere kokapena da. Zentzu horretan, hurrengo urteetan komunikazio eta garraiobideak hobetzea eta beste herri batzuetara gerturatzea kontuan hartzeko moduko erronka izango da.

- **Indarguneak?**

Gazteri bizia, industria sare anitza eta hezkuntza azpiegituraketa egokia edukitzea eta proiektu indartsuak martxan izatea... Beste gauza askoren artean hauek dira gure potentzial edota indar nagusienak. ●

amuko zubitik Jabier Altuna

EZKUSTAN HAIZE ERROTAK

Ni gazteagoa nintzenean, ekolojista mugimenduak enerjia eolikoa bultzatzen zuen; hortik zetorrela etorkizuna mila aldiz entzun genuen. Gaur egun, aldiz, enerjia eolikoa bultzatu nahi duten proiektuak kritika eta oztopo gehiegi jasotzen dituztela esango nuke; adibidez:

- Enpresa pribatuak bultzatzen dituzte proiektu hauek dirua irabazteko asmoz, industri-proiektu bihurtu dira. Ados nago, ahal izanez gero instituzio publikoen esku egon behar lirateke gauza horiek.
- Gehiegizkoa litzateke gainera gure mendi tontorrak horretarako uztea; ados hemen ere, ezin dira edozein lekutan ipini.Nik behintzat, Xoxoten ez nituzke onartuko.

Baina ezetz esatea ez da nahikoa; ez eta ez, beste aukerarik aurkitu edo eman gabe ibiltzeak gauza bat dakar: Bushi lehendakaritza lortzeko laguntza eman dioten petrolio enpresek eta hemen, Espainiako estatu mailan, zentral nuklear gehiago behar ditugula esaten dutenek horixe bera lortzea. Esaten dutenez, urtero-urtero energia beharra ez dakit zenbat hazten den, eta horri aurre egiteko energia nuklearra eta petrolio ekoizpena gehitu behar dira; hau Amazonian, Alaskan edo Antartikan izatea ez zaie ezer axola. Guk ez genuke esan beharko: "uff, urruti zeudek leku horiek; zer axola zaiguk bada, Antartika zulatzea edo ez dakit non zentral nuklearrak irekitzea".

Euskal Herrian ere gehitu da energia beharra eta horren aurrean gure zatitxoa eskaini beharko genuke; "Xoxoten ez" esango dugu azpeitiarrok, bergararrak "Elosun ez", berriz... etenik gabeko katea; baina nonbaiten zerbait egin beharko genuke.

Esan bezala, gazteago nintzenean, lagunekin Etxe Zuri aldera jeisten ginen eta han ia beti haize zakarrak hozten gintuen. Ordundik pentsatu izan dut hor nonbaiten jarriko nukeela haize errota bat.

azketako ude Ainhoa Odriozola

EZ DEZAGUN ALFERRIK ERABILI

Gatazka beliko baten ohiartzunean, erreparoa ematen du beste edozertaz hitz egiteak. Irakiar errugabe askoren kezken ondoan, hutsak dirudite Azpeitia eta azpeitiarron kontuak. Baina kezkatzen nauen arazo batez jardun nahi dut: gure herriko trafikoaz.

Zoratzekoa da herriko auto-festa: kaleak hartu dituzte, eta gero eta deserosoagoa da bertan ibiltzea, oinezko zein auto gidarientzat. Herritik kanpo ateratzeko ere, berdintsu: auto ilada galantak. Egin ariketa erraz hau: galdetu Azkoitian lan egiten duen bati zenbat denbora behar duen eguerdian lantokirako bidea egiteko. Izugarria. Horren aurrean, proposatzen diren irtenbideak azpiegituren ildotik doaz beti: Sanjuandegiko errotonda eta balizko saihesbide sonatu hori, adibidez.

Beste ariketa bat: 14:00ak aldera jarri Esklabetan, errepidearen ondoan, eta zenbatu pasatzen diren autoetatik zenbat doazen bi edo pertsona gehiagorekin. Esku bateko hatzekin kontatzeko moduan. Honelako ariketen zerrenda asko luza daiteke... Autoa gehiegi erabili eta gasolina erruz gastatzen dugula argi dago; eta zorionez, horretaz ohartu dira munduko agintariak. Orain gutxi irakurriko zenuten Londonen hartutako neurria: hiri erdigunean autoz ibiltzeko ordaindu beharra. Neurri polemikoa ezbairik gabe, baina norabide zuzenean doa. Noiz hartuko dugu norabide hori Azpeitia eta antzeko herrietan? Bakoitzak geure neurrian ahalegin handia egin dezakegulakoan nago. Ez gaude bakarrik munduan. AEBen gudurako arrazoi nagusiena Irakeko petrolioaren kontrola eskuratzea dela badiot, ez da berria. Ez da berria, petrolioaren aplikazio nagusienetakoa erregai bihurtzea dela ere. Eta ez da, zoritxarrez, berria, erregaia gugana itsasontzi handietan garraiatzen dela badiot ere. Ez dezagun alferrik erabili.

puntie ateaiez Enekoitz Esnaola

ZUEI

Aurrena hiri, Martxelo. 1996an, Espainiako hauteskundeen atarian *Firin Faran*-en esan huen guretzat "gauza bera" dela Gobernuan PSOE edo PP egotea. Ikusi duk ezetz. PP-koak dituk munduko politikorik koherentenak. Hala ere, arazoa ez duk PP.

Gero hiri, Iñaki (Uria). Orain dela hamar bat urte, *Egunkaria*-ren aldeko egun baten ondoren esan huen "arnasa" hartu genuela euskaldunen babesagatik. Lehengo astean ere hartu genian. Bitartean, tuboen bidez arnasten diagu.

Hirugarrengoz zuei, DV —beraz, España— finantziatzen duzuenoi. Lasai, zuenera ez dira joango. Ondo pasatu Inauteriak. Ah!, eskerrik asko egun bateko arnasa emateagatik.

Eta azkenik, Martxelo atxilotu baino ordu gutxi batzuk lehenago Azpeitian hura zaintzen ibili zineten eta etxeraino lagundu zenidaten txakurroi, muxu bat.

bota bertsue Jokin Uranga

ELEGANTE EGUNA

Eleganteen egunak badu
guregan hainbat botere
lagunartea degu oinarri
ta txikiteoa lege
arazo denak ahaztu eta
ondo pasatzea xede
eta dotore jantzi ohi gera
urtean behin bada ere.

Nere osasun egoerarentzat
ez izan arren atsegin
Bastida jauna beste behin ere
gogoratu nahiz zurekin
berez hain festa ederra dena
bere hortan joan dedin
lehengo urtean egin zenduna
ez zazu berriro egin.



AZPEITIARRAK. Azpeitiarrek *Egunkaria aurrera. Bai euskarari!* manifestaldiari bikain erantzun zioten. Mila azpeitiar inguru hurbildu zen, autoz eta autobusez, Donostiara otsailaren 22an.

IDENTIFIKAZIOAK. *Egunkaria* itxi eta Azpeitiko euskalgintzak herri batzarra deitu zuen. Kartelak jartzen ari zirela, Ertzaintzak identifikatu egin zituen bi euskaltzale. Ohikoa bilakatzen ari da herrian hori.

PRESA ERORITA. Otsailean izan diren euri jasek Malkortxoko presa deusteztu egin dute. Dagoeneko ez da presarik bertan. Azpeitiko eta azpeitiarren leku mitiko bat galdu da. Eraikiko al da berriro?

uztarria.com-eko eztabaidie

GAIA: Uztarria Kultur Koordinadoraren web guneko 'eztabaidan' atalean emakumea Azpeitian baztertua ote dagoen edo ez sesioan dabiltza kide batzuk. Hona gutun horietako sorta bat:

Baloratuta

Emakumea Azpeitian baztertuta? Nire ustez eta ezagutzen ditudan lekuen arabera, Azpeitian emakumea baloratuta dago. Herri anglosajoietako hirietan ezer gutxi *pintatzen* du emakumeak zentzu askotan; dena gizonentzako antolatuta baitago. Hemengo matriarkatua berezi xamarra da, beste lekuetan ho-rrelakorik ez baitago. Zein arlotan dagoen baztertuta? Batez ere gizarte eta harreman mailan. Zenbat eta aurreratuago, garatuago izan lurraldea orduan eta gehiago dago baztertua emakumea. Hori nola zuzendu? Zaila iruditzen zait. Gizonak geure artean konpontzen gara, baina emakumeekiko mesprezu edo distantzia moduko zerbait beti hor dago. Uste dut jenetikoa dela. Nola zuzendu? Ideiarik ez. Baina, aupa Azpeitiko emakumeak berezi xamarrak direlako.

Flash

Lan arloan baztertuta

Emakumeak lan arloan daude batik bat baztertuta. Zergatik emakumeei titulu berdina izan eta gutxiago ordaintzen zaie? Lan elkarrizketetan bikoterik al duzun eta umerik izateko asmorik duzun galdetzen dute. Ez al da bada populazioa igotzea nahi?

Ni

Baztertuta

Martxoaren 8a erreibindikazio eguna da oraindik eta zerbaitegatik da. Uste dut emakumeak baztertuta gaudela, diskriminatuta, eta horrela jarraituko du aurrerantzean ere; estrukturala delako. Azpeitian ere hala gertatzen da. Emakumeok baztertuta gaude kirol taldeetan (gizonezkoen arteko txapelketak, gizonezkoen taldeek lehentasuna dute...), ikastetxeetan (hezkuntza sexista), tailerretan (emakume gutxi agintean, lana lortzeko zailtasunak) eta orohar herrian. Izarraizpeko Sorginek lan ona egiten du, gure egoera salatzeko. Irtenbideetan pentsatzen hasi beharko ginateke, herritik bertatik egoera nola hobetu pentsatzen. Animo!

Naxi

Ez da genetikoa

Genetikoa? Ez da. Hein handi batetan hezkuntza arazoa da. Egia da haurrak emakumeak izaten ditugula, eta horrek eragiten du emakumeen hainbat kontutan (lanean ardura postuak hartzerakoan, esaterako), baina emakumearen zapalketa eragiten duen arrazoi nagusia hezkuntza da. Azpeitian ere hori gertatzen da.

Flash-i

Atzeraka goaz

Genetikoa, arra eta emea izatea dela uste dut. Beste guztia pauta ikasiak dira. Inertzia apurtzea oso zaila da.Azpeitian gehiago. Kaleko giroa, arkaikoa bihurtu da. Azken 20 urteotan atzeraka goaz, nabarmen. Emakumeak dira etxe gehienetako ardatza. Baina, gizonezkoen baloreak defendatzen dituzte.

Emakume! Ez ezer sinestu. Ikasketetan gehiago zarete. Kalean ez erori gizonezkuon jokoan.

Aldatuko ote dugu?

Elorri

akullue

Leire Ostolaza

NEGU HOTZA, UDA BEROA?

Hala zioen Hertzainaken abesti batek: "negu gogorra herri puta hontan...", eta hala diogu azken aldian eguraldia dela eta hizketan hasten garenean: "Aurten neguan neguko giroa dugu eta izugarrizko uda egingo digu ..."; eguraldiak negu txarra uda onarekin eskertzeko betebeharra balu bezala. Hala gertatuko balitz, berriz, arazo latza sortuko litzaiguke Kantauri kostaldean bizi garenoi eta batik bat azpeitiarroi.

Uda beroa izango balitz, uretan freskatu beharra sentituko genuke eta itsasoa *txapapotez* narraztua izango denez artean, beste aukeraren bat bilatu behar. Urola ibaian sartzen ausartuko denik ez izatea espero dut, inork gaitz larriren bat harrapatu nahi ez badu behintzat ; hor *txapapotearen* ordez, txapazko poteak, plastiko zorroak, olio orbanak ur gainean eta ikusten ez ditugun mila arrisku aurkituko genituzke eta. Aurten arte Malkortxo izan zitekeen gure irtenbide bakarra baina neguko euri jasek eraman dute presa.

Azkenean lagunok, igerileku masifikatua edo etxeko bainuontzia dira gure aukera bakarrak, non eta ez duten aurrekontu fantasmaren batekin Nuarbeko urtegia hondartza bihurtzen.

galdeiez

Inauteriak gogoko al dituzu? Mozorrotzen al zara Inauterietan?

Asier Agirrezabal
(ikaslea)

"Inauteriak gehien gustatzen zaizkidan festak dira. Niri asko gustatzen zait mozorrotzea, ikastolan ere beti, urtero, mozorrotu ohi naiz. Aurten ez dakit oraindik zertaz mozorrotuko naizen, ideia bat baino gehiago ditudalako buruan. Inauterietako egun politena astelehena izaten da, mozorrotzeko eguna, alegia".

Ana Aranguren
(langilea)

"Nahiz eta gehiegi ez ditu-

zer diyo?

ZERGATIK AUKERATU IKASTOLA?

Gure seme-alaben hezkuntzarekin erabakiak hartu beharrean aurkitzen ari garen urte sasoi honetan beharrezkoa dugu guztiok gure erabakiak norantza eramaten gaituen jabetzea.

Ikastola, memoria historikotik hasiz eta etorkizuneko erronkari eutsiz, Nafarroa Osoa/ Euskal Herriaren eskola nazionala egiten.

Euskal Herriak, herri guztiak bezalaxe, hezkuntza zerbitzua antolatu beharra dauka bere nortasuna bermatzeko. Hitz gutxitan esanda: gaur egungo euskaldunak egiteko helburua duen eskola nazionala eta unibertsitatea. Eta hori euskara irakastea baino zerbait gehiago da.

Estatu guztiek antolatzen dute hezkuntza sistema norbere herriaren nortasuna gordetzeko. Estatu frantsesak, frantsez nortasuna eta estatu espainolak, espainol nortasuna bermatzen dela kontrolatzen dute.

Estatu espainolak erreforma politikoa egin zenean Estatutoaren bidez eta ondorengo garapenean, beti zaindu izan du estatuko biztanle guztien espainoltasuna bermatzea.

Autonomia estatutoen bitartez zenbait ahalmen ematen joan badira ere Espainiako eta Frantziako gobernuak gero eta ausartagoak izaten ari dira beraien nortasuna bermatzeko mekanismoak eta jarrerak inposatzerakoan.

Eskola eremuari dagokionez, argi ikusi bagenuen 1993ko Erkidegoko Euskal Eskola Publikoaren legean, zer esanik ez, PPren eskutik ondoren etorritako legeetan eta datozen dekretuetan. Horregatik, dena berdina ez delako, 1993-an izena eta izana mantenuz Ikasberrikoek eutsi genion ikastolari, bailaran bakarrik geldituz.

Euskal Herriak ez du osorik hartzen duen administrazio propiorik. Historikoki Europan izan genuena, eta indar militarrez kendu zitzaiguna, ez bakarrik ez dugu errekuperatu, baizik eta horrez gain, nola izan zen ahaztu eta nahasteko egoeraraino ekarri gaituzte.

Argi dago, zerbait nahi izateko lehenengo ezagutu egin behar dela. Horregatik ezin du inork Pirineoetako herri zahar horren kide bezala harro sentitu, eta hori aldarrikatzeko jarrera izan, ez badu ezagutzen, bera, herri horretako kide denik ere.

Zenbaitengan, gehienez ere iraun duen sentimentu bakarra euskararekikoa izan da eta horren arabera gabiltza bidea egiten.

IKASTOLA ETA HERRIGINTZA. Ikastola, herrigintzan, Euskal Herriaren eskola nazionala egiten: geure herria erreferentzia izanik, herritarren eskutik, herritarrentzat.

Ikastolen prozesu historikoari begiratuta argi ikusten da ikastolen etorkizuna erabat lotuta doala Euskal Herriak nazio bezala bere burujabetza lortzeko daraman prozesuarekin. Eta bide horretan herritarrak ez gara geldirik egon.

Ikastolen ibilbide historikoan herritartasuna du ikastolak bere ezaugarri nagusienetakoa. Beraz, helburua bada euskaldunak egitea, bai helburu horri, eta baita hori lortzeko martxan ipintzen den funtzionatzeko moduari dagokion ezaugarria da herritartasuna. Biak elkar loturik. Hau da, helburu nagusia bermatzen dela kontrolatzeko, euskal herritarrei eskaintzen zaien zerbitzu publikoa, herritarrek beraiek zuzenean zaintzen dutena.

dan bizi, gustatzen zait jendea mozorrotuta ikustea. Nik neuk gustoko ez izan arren, oso giro alaia egoten da inauterietan. Azken urteetan ez naiz mozorrotu eta aurten ere ez dut uste mozorrotuko naizenik. Hala eta guztiz ere egunik politena txikiteo elegantekoa iruditzen zait, jendearentzat egun berezia dela uste dut".

Eneritz Odriozola
(ikaslea)

"Inauteriak gustoko ditut giro alaia egoten delako. Asko gustatzen zaizkit, betidanik gainera. Txiki-txikitatik mozorrotzeko ohitura dut, nire etxean oso bereziak izaten direlako inauteriak. Aurten *indiaz* jantziko gara kuadrilakoak. Inauterietan goizeko zazpietan zezena ateratzean egoten den giroa atsegin dut".

UZTARRIAREN WEB ORRIKO INKESTA

1. GALDERA: Inauterietako mozorroa pentsatuta al duzu?
- **Bai:** % 23
- **Ez:** % 19
- **Azkenengo orduan pentsatuko dut:** %17
- **Ez dut mozorretzek asmorik:** % 41

Alvaro Martin
(ikaslea)

"Inauteriak oso gustoko ditudan festak dira. Mozorrotzeko ohitura badut, urtero-urtero mozorrotzen naiz. Aurten badakit zertaz mozorrotuko naizen, *mekanikoz* hain zuzen ere. Inauterietan gehien gustatzen zaidana mozorrotuta kalera ateratzea da eta zezena".

Garazi Urbina
(Ikaslea)

"Inauteriak gustatzen zaizkit, atsegin ditut. Aurten, inauterietan *Superwoman* mozorroa jantziko dut, kuadrilako denok horrela mozorrotuko gara. Inauterietako festetan gehien gustatzen zaizkidan ekitaldiak astelehen iluntzean egiten den mozorro lehiaketa eta egunean zehar izaten den sokamuturra dira".

> "Estatu guztiek antolatzen dute hezkuntza sistema norbere herriaren nortasuna gordetzeko"

> "Euskal Herriak ez du osorik hartzen duen Administrazio propiorik"

> "Ikasleekiko jarrera aldaketa, gurasoen papera eta pertsonal konprometitua: hiru erronka nagusi"

HIRU ERRONKA. Ikasleekiko jarrera aldaketa, gurasoen papera eta pertsonal konprometitua: hiru erronka nagusi.

Horrez gain eta horren harira, badira beste zenbait ezaugarri garrantzitsuak direnak. Bat euskal nortasuna bermatzearena bada, bestea geure ikasleekiko jarrera da. Hain zuzen ere beraien etorkizuna burua altxaturik, norbere buruaren jabe izaten ikasten lagunduko dien jarrera. Beraz menpekotasuneko jarrerak ez dute lekurik izan behar gure ikastoletan.

Eginkizun horretan, bestalde, izugarri garrantzitsua da, proiektu horrekiko bertako pertsonal guztiaren atxekimentua lortzea.

Eta hori guztia bermatzeak hezkuntzan suposatzen duen eraldaketa benetan eman dadin, ezinbestekoa da gurasoek proiektu guzti hori eskutik eramatea

Ikastolok, gurasoek zuzenean erabakitzeko ahalmen hori duten zentru bakarrak gara. Eta hori izan da, ez bakarrik baina bai nagusiki, historikoki, ikastolaren mugimendua momentu gordinenetan ere bizirik mantendu duena.

EKARPENA. IEuskaldunok, hezkuntza eremuan egin dugun ekarpen original hau, geuk uste baino garrantzitsuagoa delakoan gaude. Batez ere munduan zehar lurralde txikietan hedatzen diren herri zaharrak beraien nortasuna gordetzeko behar duten antolaketan.

Hori guztiagatik, oraindik, Euskal Herriak bere Eskola Nazionala eta Unibertsitatea izateko, ikastolak beharrezkoak dituelako, eta seme-alabak, euskaldunak izan eta hezkuntza onena jasotzeko merezi du ikastolaren aukera egiteak.

Gogoeta hauek egitera bultzatzeko antolatzen dugu berriro ere aurten Azpeitian bigarren Euskal Eskola Nazionalaren aldeko eguna martxoaren 30ean.

Elias Mendinueta
eta Mirari Bereziartua
(Ikasberri Azpeitiko Ikastolakoak)

hausnartzen

GAIA: 'Maiatzeko udal hauteskundeak'. Zein da azken urteetako balorazioa? Nolakoak izango dira hauteskundeak? Zilegitasunik ba al dute Batasunak ezin badu aurkeztu?...

Oharra: hurrengo aleetan ere eztabaida hau sartu nahi dugu Uztarrian; beraz, idatzi nahi duenak bidali artikulua aldizkariaren helbidera

OZTOPO GUZTIEN GAINETIK GU PREST!

Datorren maiatzean udal hauteskundeak izango dira: Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako batzar nagusietakoak eta Nafar parlamentuko hauteskundeak, hain zuzen ere. Lau urtetarako herritarrengandik gertuen diren instituzioetako ordezkariak aukeratzeko parada. Hego Euskal Herriko herrietatik Udalbiltzan parte hartuko duten herritarrak izendatzeko aukera. Hego Euskal Herrian alderdi eta mugimendu ezberdinen jarduera markatuko duen mugarria beraz.

Ez dira ordea hauteskunde hauetan parte hartu nahi duten bakarrak. Estatu espainiarrak Araba, Bizkaia, Gipuzkoa eta Nafarroako herritarren aurrean bere agintea agerian uzteko erabakia hartuta baitu. Lehenik Batasunaren suspentsioaren bidez eta laster, erabakia duten ilegalizazioaren bidez, euskal herritarron hitza isildu nahi dute. Demokraziaren kontzeptu bitxia erakutsi nahi digutena!

EUSKAL HERRIKO ESKUBIDE URRAKETA. Euskal Herrian pairatzen den eskubide urraketek beste urrats bat gehiago izan dute.

Gaur, oraingoz, 200.000 herritar inguruk ez dute beren ordezkaririk aukeratzeko aukerarik izango. Eta urrats bat gehiago dela esaten dugu. Euskal Herriak bizi duen gatazkaren ondorioak larriak baziren, hildakoak, torturak, mehatxuak, atxilotuak,... Estatu espainiarrak euskal izaera izan dezakeen guztiaren desagerketaren aldeko apustua egin baitu. Duela egun gutxi Euskaldunon Egunkariaren aurkako erasoak, eta lehenagotik Egin-en, AEK-n, Haika-n, Askatasuna-n, Ekin-en, Segi-n, Batasuna-n, Zabaltzen-en, hainbat kultur elkartetan, Xaki-n,... eginiko erasoek erakusten duten bezala.

Azken finean, estatu espainiarrak Euskal Herriaren asimilazio prozesuaren azken fasea martxan jarri du eta ondorioz, Euskal Herria bere osotasunean eta eskubide guztiez horniturik eraiki nahi duten oro dute jomugan.

DEMOKRAZIA. Panorama honetan datoz bada maiatzeko hauteskundeak. Demokraziaren adierazpen behinena omen diren hauteskundeak. EAJ-EA koalizioak batera joatea erabaki duten honetan azaldu beharko dute zertan den beren proiektu abertzale demokratikoa. 200.000 euskal herritarrek beren ordezkariak aukeratu ezinean gelditzen badira, nola bermatuko dituen beren eskubideak. Zein zilegitasun demokratiko ematen dion horrela gertatzen diren hauteskundeei.

Ez gaitezen engainatu. Hauteskundeetan parte hartzea ala ez erabakitzea edo irtenbiderik bilatzea, ez dagokio ezker abertzaleari. Hala balitz erabakia hartua legoke honez gero. Baina hortxe dago arazoaren muina, Euskal Herriak eta euskal herritarrek ez dute erabakitzeko ahalmenik, azken hitza beti dago Madrilen edo Parisen. Eta hortik letorke ere irtenbidea, zein tresna eta konpromiso hartzen ditugu euskal herritarren hitza eta erabakiak errespetatu daitezen.

> "Euskal Herriak eta euskal herritarrek ez dute erabakitzeko ahalmenik"
>
> "Ezinbestekoa da ezkertiar eta abertzaleon konpromisoa eta lana"
>
> "Berebiziko erronka dugu datorren maiatzerako. Asko dugu jokoan"

Argi izan ezkertiar eta abertzaleok, direnak eta bi eginen ditugula bizitzako esparru guztietan egoteko, baita hauteskundeetan ere. Euskal herritar guztioi dagokigu ordea eskubide hori bermatzea.

ETORKIZUN BERRI BATERAKO. Argi ikusten baitugu etorkizun berri baterako ezinbesteko dela ezkertiar eta abertzaleon konpromisoa eta lana, baita Azpeitian ere. Azken urteetan udaletxetik eman den jarduerak agerian uzten du hori. EAJ-EA-k Azpeitian landu duten proiektuak ondorio larriak utzi ditu: etxebizitzak herritar orok bizitzeko beharrezko duen aterpe izan beharrean, gutxi batzuen eskura dagoen luxuzko produktu bihurtu ditu. Espekulaziorako produktu izarra. Herriko bizitzan parte hartzea erraztu beharrean oztopoz beteriko saiakera da gaur egun.

Urteak pasatu arren eta proiektu ezberdinak aurkeztuta ere, Kultur Etxeak amets bat izaten jarraitzen du, kultur arloan lanean ari diren herritarren jarduera erabat baldintzatuz. Gazteek beren denbora antolatu eta egoera aldatzeko gunerik ez eskaintzeaz gain, ukatu egiten zaie, eta nahiago dute zementuarekin tapatutako lokal hutsak ordaintzen aritzea erabilpenik ematea baino. Euskararen normalkuntza edo biziberritzeko planetarako euskalgintza ez dute inondik inora kontuan hartu nahi.....

Berebiziko erronka dugu beraz datorren maiatzerako. Asko dugu jokoan. Proiektu ezberdinak izan ditzakegu eta ditugu. Baina denok jokatu ahal izateko joku-kanpoa ezinbestekoa dugu Euskal Herriak etorkizunik izango badu behintzat. Gu prest gaude. Eta zu?

Miren Odriozola (Azpeitiko SAko zinegotzia)

Egunkaria aurrera

orain!

INOIZ BAINO GEHIAGO

euskarak behar zaitu

Egin zaitez harpidedun!
(dagoeneko harpideduna bazara, ez bete)

Izena: .....

Herria: .....

Telefonoa: .....

Kontu korrontea: .....

Martin Ugalde Kultur Parkea - Edifizio zuria - 20140 ANDOAIN

Egunkaria aurrera

AZPEITIARROK ERE, 'EGUNKARIA AURRERA!'

Mila herritarretik gora joan ziren otsailaren 22an Kontseiluak Donostian 'Egunkaria'-ren itxiera salatzeko antolatu zuen manifestaziora

Nerea Uranga

Azpititik mila lagun inguru hurbildu zen Donostiara, autoz eta autobusez, *Egunkaria*-ren itxiera salatzeko Kontseiluak otsailaren 22an deitutako manifestaziora (autobusean 500 lagun inguru). Guardia Zibilak, otsailaren 20an *Egunkaria*-ko Hegoaldeko egoitzak itxi egin zituen, beste erakunde batzuen egoitzak miatu, eta guztira hamar euskaltzale atxilotu zituen. Hona www.uztarria.com-en jendeak idatzitakoak:

"*Egunkaria* aurrera! *Egunero* kalean izango da hemendik aurrera! Ez gaitezen eroste hu-

Zortzi autobus bete-bete eginda joan ziren Azpititik Donostiako manifestaziora. / NEREA URANGA


Donostiako manifestazio jendetsua. / N.U.

aleen salmenta

- **'EGUNKARIA' AZPEITIAN.** Iazko datuen arabera, Azpeitian egunero *Euskaldunon Egunkaria*-ren 117 ale saltzen ziren. *El Diario Vasco* da nagusi, egunero 1.367 alerekin. *Gara*, 197. *Deia*, 57.

Azpeitiarrak gogoz joan ziren *Egunkaria*-ren alde egitera. / N. URANGA

Azpeitiarrak manifestazioaren bukaeran. / N.U.

kzlk
kitzika joyería
Brilanteak - Urre Zuria eta Oria - Festina Urrea
Pastorkua Tabernaren ondoan
Jose Artetxe, 13 Tel. 943.15.76.13 AZPEITIA

Irudiekin, Iraurgi bailararen zerbitzura
KAITO TELEBISTA
Grabatutako bideoen kopiak egiten dira

☎ 81 53 35

tsean geratu. Irakur dezagun *Egunero*! Hori da *Egunkaria*-ren eta euskal prentsaren aldeko gure apustua! Erosi eta irakur dezagun euskal prentsa!

Egin Egunkaria Egunero

Euskal hitza bahitu digute. Ustezko ustetan eta frogak aurkeztu gabe, enpresa, langileak, irakurleak, euskara... jomugatzat hartuta, demokraziaren izenean eta gure mesdetan (?)... bahitu digute. Atxilotuen erruduntasuna frogatuko balitz ere, adierazpen askatasunaren mesedetan, ez luke komunikabide baten itxiera ekarri behar... Baina, *Egin*-en kasuan bezala, itxiera honek sortzen dituen kalteek behin betiko itxiera dakarrela, jakin, badakite! Ozen esan nahi dugu, ezinbestekoa dela, legeriak jasotzen duen moduan, kaltetutakoen erugabetasun printzipioa zaintzea... Eta, jakin bezate, irakurle-bezeroak direla, egunkari bat zigor dezaketen bakarrak! Gainontzean, Azpeitiko Karmelo Etxegarai Ikastola eta Urola ikastoletatik, elkartasuna adieraztea eta Donostiko manifestaziorako deia luzatzea euskararen eta adierazpen askatasunaren mesedetan!

Erosi *Egunero Egunkaria*!

Karmelo Etxegarai Ikastola eta Urola Ikastola

Eutsi goiari! Sekulakoa izan da internauten artean e-mail bidez eta web orrien bidez sortu den mugimendua. Ez dute lortuko, edozein oztopo jartzen dutela ere, gainditzeko gai bagarela badakigu, beraz eutsi eta aurrera! Utzi Euskal Herria bakean!

Josu

Interneteko mugimendua ondo dago, baina horretara ez dugu mugatu behar. Denok kalera! Utzi bakean Euskal herria!

Faxismoari su

Aupa *Egunkaria*, jarraitu aurrera, euskaldun asko daukazue atzetik!

Iratxe de Madariaga

Aupa *Egunkaria* , eutsi goiari, eta etsaiari hortzak erakutsi.

Xabier

Atzo [otsailaren 19an] Martxelo Otamendiren hitzaldian izan nintzen, Aitonenan. Gogoeta politak egin zituen Martxelok... eta orain, hau. Lotsagarria. Lotsagabekeria. Nire elkartasunik beroena atxilotuei eta euren gertukoei. Eta animo *Egunkaria*-n lanean ari diren guztiei, azpeitiarrei bereziki. Eutsi goiari!

Josu Azpillaga

Goizeko zortziak, erdi esna irratia piztu eta amets gaiztoa esatariaren ahotik... Elkartasuna atxilotuak izan diren guztiei, *Egunkaria*-ko langile guztiei eta orokorrean euskalgintzan aritzen zareten guztioi. Bihar euskaraz gosaltzeko aukerarik izango al dugu? Bereziki, besarkada bero bat eman nahi diot Txema Auzmendiri, azken berrien arabera atxilotuetako bat baita. Animo eta segi aurrera!

Pablo Dominguez

Utzi Euskal Herria bakean! Esan dezakedan bakarra da orain. Ez dakit nola konponduko den arazo hau; oraingoz mobilizazioetan parte hartzea pentsatzen dut, dudan amorrua adierazteko. Nahikoa da!

Nahikoa da

Nazkatuta nago hainbeste txakurrekin. Aste honetan 33 atxilotu izan ditugu, denak inkomunikatuak izan dira. Nor da terrorista? Gogoratu Ertzaintzak ere atxilotuak inkomunikatu dituela, NBEk emandako argibideen aurka. Beste guztia makilajea da.

Maki

Zer da hau? Benetan lotsagarria iruditzen zait, badirudi frankismora bueltatu garela. Animo *Egunkaria*-ko denoi, eutsi goiari!

Lotsagarriye

Lotsagarria izan da. Oraindik ezin sinetsita nago. Zerk gertatu behar du? Haserre, haserre daramat goiz guztia kontu hau dela eta. Euskararen eta euskaldunon aurkako ekintza hauen aurrean, ezin giztezke isilik geratu, ez dago eskubiderik! Jaso dezatela nire elkartasuna, *Egunkaria*-ko langileek eta egunetik egunera gehiago di-ren irakurleek ere. Ez gaituzte isilduko!

Alaitz Olaizola

Egunkaria aurrera! *Egunero* kalean izango da hemendik aurrera!, eta ez gaitezen erosle hutsean gelditu, irakur dezagun *Egunero*! Hori da-eta *Egunkaria*-ren eta euskal prentsaren aldeko gure apustua! Erosi eta irakur dezagun euskal prentsa egunero!

Irakurri

EUSKARAZKO PRENTSA AURRERA!

Itxi egin digute *Egunkaria*. Baina *Egunero* atera dugu. Eta *Egunero* ixten badigute, euskarazko beste egunkari bat aterako dugu. Ez dio inporta izenak, izanak baizik. Eta *Egunkaria*-ren izan horrek ematen dio min Espainiako Estatuari. Hau da, Euskal Herriaren burujabetzarako ezinbesteko tresna dela euskarazko prentsa.

Leire Aramendi, Jon Aranburu, Iban Arregi, Mikel Arregi, Mikel Azkune, Estitxu Elduaien, Oihana Elduaien, Enekoitz Esnaola, Eneko Etxeberria, Xebaxtian Lizaso, Kike Zurutuza ('Egunkaria'-ko langile azpeitiarrak)

KONPROMISO ESTRATEGIKOAK

***Egunkaria*-ren itxieraren aurrean, bi kontu:**

1. Uztarriak elkartasun osoa adierazten dio *Egunkaria*-ri, eta babes eta lan konpromiso pertsonal eta kolektibo osoa ere bai. Aurrera!

2. Euskarazko prentsan sinesten dugunok, horretan konpromiso estrategikoak (hartu) behar ditugu. Esparru komunikatibo indartsua behar dugulako.

Uztarria Kultur Koordinadora

AMAIA TABERNA

Pintxo bereziak eta giro jatorra

Tel, 943 150472 ◆ Erdi kale, 13

alde zaharra
Azpeitiko alde-zaharreko merkaturien elkartea

udal erabakiyek

Ingurumen teknikari plazarako azterketen egutegia

Epaimahai kalifikatzaileak, urtarrilean, egindako bilkuran, Ingurumen teknikari plaza, lehiaketa-oposaketa irekiaren bidea erabiliz betetzeko deialdiaren azterketen egutegia osatu zuen. Lehen azterketa otsailean egin zen. Bigarrena, martxoaren 10-ean izango da, Administrazio Orokorreko gaiei buruzkoa. Eta azken azterketa martxoaren 19an, materia zehatzean ezagupen teorikoa neurtzeko proba izango da.

Udal langileen hauteskunde sindikalak

Otsailaren 14an egin ziren udaletxeko langileen hauteskunde sindikalak eta hauteskundetako emaitzak honokoak izan dira: alde batetik, ELA sindikatuak 41 botu lortu zituen, beraz, hiru ordezkari izango ditu; Jose Mari Arregi, Jose Luis Bastida eta Marilu Soraluze. LAB sindikatuak bestalde, 18 botu eskuratu zituen. Guztira bi ordezkari izango ditu, Jose Mari Galarraga eta Mikel Urrestilla.

Martxelo Otamendi

gurien...

'Euskaldunon Egunkaria'-ko zuzendaria

"Aitona azpeitiarra nuen: Gregorio Egiguren, Eperranekoen tartekoa"

Enekoitz Esnaola / Otsailak 19. Asteazkena. Arratsaldea. Martxelo Otamendi *Euskaldunon Egunkaria*-ko zuzendariaren hitzaldia Azpeitian, Baite Euskara Elkarteak antolatuta. Eta, horretaz baliatuz, Uztarriak elkarrizketa egin dio, tarte honetarako. Sei ordura Guardia Zibilak atxilotu egin du Martxelo Otamendi bera. Honatx atxilotu aurretik emandako azken elkarrizketa.

• Beste behin ere etorri zinen Azpeitira hitzaldi bat ematera, ezta?

Bai, oraintxe dela urte eta erdi-edo etorri nintzen, euskal hezkuntzari buruz hitz egitera. Dena dela, ez zen hitzaldia, mahaingurua baizik.

• Azpeitiarretik ba omen duzu zerbait...

Aitona nuen azpeitiarra nik, amaren aita: Gregorio Egiguren. Eperranekoen tartekoa zen. Neuk ez nuen ezagutu. *Kanpeon* delako baten alabak gure amaren tartekoak ziren. Nire aitona Tolosara ezkondu zen, Alkizako emakume batekin. Haren anaia Demetriok oinetako denda zeukan. Aitona bera langilea zen; Donostiako Artzain Oneko tximistorratza berak ipini zuen.

• Orduan hona etorriko zinen behin baino gehiagotan.

Bai, baina ez familiagatik, bestela baizik. Saskibaloian jokatzera Tolosa CFrekin, eta, batik bat, festetara. Sarri joaten ginen Fideo de Miletora, Gau Txorira eta Etxe-Zurira.

• Inauterietan ez, ezta?

Ez. Inauterietan, Tolosan. Tolosarra naiz, aizu! Aurten ere ez dut hutsik egingo [horixe esan zigun berak...]. •

Segabathor, bigarren aldiz saridun

Segabathor musika taldeko kideak. / Xanti eta Ondarru

Nerea Uranga / Baionako Gure Irratiak hirugarrenez antolatu du aurten Gazte Leiho lehiaketa. Eta oraingo honetan Segabathor talde azpeitiarrak, heavy-rock atalean, lehen saria jaso du. Baina, ez da aurreneko aldia Gure Irratiak antolatzen duen Gazte Leiho lehiaketara aurkezten dena, lehen edizioan, 2000. urtean, hirugarren saria eskuratu zuen.

Gure Leiho lehiaketako irabazleak entzuleek erabakitzen dituzte. Hamar egunetan bildu ziren botoak: 8.645 boto jaso ziren, horietatik 2.263 boto Segabathorren aldekoak izan ziren.

SENPEREN KONTZERTUA. Gure Irratiak antolatzen duen Gazte Leiho lehiaketara, Segabathor taldeak orain gutxi atera berri duen bigarren CDko hiru kantu aurkeztu zituen. Taldeak adierazi duenez, "hard rock eta heavy melodikotik gertu" daude lehiaketara aurkeztu dituzten hiru kantuak. *Fugite* du izenburua CDak, eta Hernialdeko Txepe estudioan grabatu zuten 2001ean. Hamaika kantu bildu dituzte bertan Segabathorrekoek. CDa herriko hainbat tabernatan dago salgai.

Gazte Leiho lehiaketa irabaztearen ondorioz, Segabathor musika taldeak kontzertu baten parte hartzeko aukera izango du. Kontzertua martxoaren 22an izango da, Senperen (Lapurdi). Kontzertuan saridun gelditu diren sei taldek parte hartuko dute. •

Euskara Patronatuaren estatutuetako artikulu baten aldaketa

Azpeitiko Udalak, urtarrilean egindako udalbatzarrean, legezko kopuruaren gehiengo osoaren aldeko botoarekin, Udal Euskara Patronatuaren estatutuko Zuzendaritza Batzordearen kideei buruzko 8. artikuluaren aldaketa adostu zuen. Ondorioz, batzordekideen atala aldatu egin da eta, besteak beste, Udaleko hiru zinegotzi hautatuko dira bertan egoteko, udalbatzarrak aukeratutakoak hirurak.

Udaleko ur, estolderia eta zaborren errolda eta ordanaldia

2002ko laugarren hiruhilabeteko ur, estolderia eta zaborren errolda onetsia izan denez, jendaurrean ageri dira Udaletxeko Idazkaritza-Kontuhartzailetzan, hilabete bateko epean. Interesatuek aztertu eta egokitzat jotzen dituzten erreklamazioak egin ditzakete, idatziz eta Udaletxeko Sarrera Erregistro Orokorrean. Borondatezko ordainaldiaren epea 2003ko martxoaren 31ko artekoa da.

Ezker abertzalea, berriro antolatzen

Nerea Uranga / Azpeitiko ezker abertzalea "aurrera begirako konpromisoei helduz" ekitaldi batean bildu zen otsailaren 8an, Soreasun. Leloa, *Azpeitia Eginez, Euskal Herria Eraikitzen*. Martxoaren 1ean aurkeztuko du plataforma. ●

Azpeitiko ezker abertzaleak otsailaren 8an egin zuen ekitaldiko irudi bat. / Jaione Unanue

zer dago gaixki, zer sobran, zer faltan?

ERANTZUTEKO EPEA: Martxoak 21 (ostirala)

HELBIDEA: Uztarria, Julian Elorza Hiribidea 4, 2.a ezkerra; edo 227 posta kutxa (Azpeitia)

AKATSA ADIERAZI (idatziz edo boligrafoz):

IZEN-ABIZENAK:

TELEFONO ZENBAKIA:

IRABAZLEARENTZAT SARIA: Disdira bitxidendako erosketa txartela.

AURREKO ARGAZKIA...

...ETA SOLUZIOA

IRABAZLEA: Maite Etxaniz Agirre

Maite Etxaniz Agirre izan da 37. garailea. Bost tabernan bi lagunentzako afaria irabazi du Maitek. Argazkian, Maite Etxaniz bera —eskuinean— eta Bost tabernako Aritz Urrestilla.

Nafarroaren, Euskal Herriaren historiaren arrastoak ikus eta entzungai

Tomas Urzainki historiagilea izango da hizlarietako bat. / UZTARRIA

Nerea Uranga / Euskal Eskola Nazionalaren egunaren inguruan *Nafarroa osoa/Euskal Herria: gure historia ezagutzen* izenburupean hitzaldi sorta antolatu du Ikasberri Azpeitiko Ikastolak. Martxoa eta apirila bitartean, lau ostegunetan, izango dira hitzaldiak eta Nabarralde elkarteko lau historiagilek hartuko dute parte. Ikusentzunezko aurkezpenak izango dira eta bukaeran laburpen idatzia banatuko da. Hitzaldiak herritar guztientzat irekiak dira eta Ikasberriko biltokian izango dira, 20:30ean.

Aurten bigarren aldiz ospatuko da Euskal Eskola Nazionalaren eguna Azpeitian (martxoaren 30ean). "Iaz, batez ere, hezkuntza planteamendutik antolatu genuen Euskal Eskola Nazionalaren eguna eta aurten gure memoria historikoa kontutan eduki nahi izan dugu", dio Mirari Bereziartuak, antolatzaileetako batek.

hitzaldiak

Euskal Herriko historia mintzagai

- **MARTXOAK 13.** Erlantz Urtasun izango da hizlaria. Euskal erresumaren sorreraz ariko da: Euskal monarkiaren abiapuntuak eta aitzindariak. Baskoniako dukerria, Orreagako gudua eta egituraketa politiko-instituzionalaren garapenaz.

- **MARTXOAK 20.** Tomas Urzainki izango da hizlaria. Mendebaldeko lurraldeen galeraz ariko da: 1200. urtearen garrantzia. Gaztelaren erasoa. Zergatiak, nolakotasunak eta ondorioak azalduko ditu.

- **MARTXOAK 27.** Jose J. Lopez izango da hizlari, hego-ekialdearen konkistaren inguruan: Gaztelak Nafarroa Garaia bereganatzen du, testuinguru europarra, argudio juridikoak eta ondorioak.

- **APIRILAK 3.** Lartaun Egibar, 1700, dinastia borboidarra eta monarkiaren *Nueva Planta*-ren inguruan arituko da hizlari. Aduanetako matxinada, 1718, euskal instituzioen eta foruen bilakaeraz ere ariko da.

"Diego Garcia zenak esaten zidan Euskadiko kroseko txapel hau lortzea nahi zuela"

Ivan Sanchez
(kroslaria)

"Astero biltzen naiz Juan Carlos Merino eta Fernando Morillorekin. Elkarri penak eta pozak kontatzen dizkiogu"

Aitor Arana
(idazlea)

Aitor Arana.

"Erosoago ibiltzen naiz prestaketarako denbora gehiago egoten den lanetan inprobisazioetan baino"

Nagore Aranburu
(aktorea)

COEG
HORTZ KLINIKA
Antonio Rafaniello
- Odontologi orokorra
- Odontologi estetikoa
- Aho zirujia
- Ezarpen osoak
- Protesi mugikorraren aldaketa protesi finkora
- Pieza gabekoa pieza finkora aldatzea
Enparan 8 - 1 Tel.: 81 67 36

AMALUR
lorazaintza
- Lorategien proiektuak
- Zuhaisken kimaketa
- Lorategi eta zelaien mantenua
- Belar landaketa eta tepe egur, harri edo txilar jartzea
943-025319 (Azkoitia)
679106753 (mugikorra)

Amenabar
DENDA
gortinak, ohazalak, edredoi nordikoak ...
Eliz-kale, 32-behea - Telf/Fax: 943 15 06 97

IRENE ALTUNA
Lore Sortak
Koroiak
Lore Apaingarriak
Etxeetarako Zerbitzua Dugu
Telf.: 943 81 51 87
Loiola-Bide, 25 - AZPEITIA

CAJA LABORAL
EUSKADIKO KUTXA

NEREA URANGA

MALKORTXOKO PRESARIK EZ. Otsailaren hasieran, euri jasen ondorioz Malkortxoko presa desagertu, erori egin zen. Azpeitiarrontzat leku erreferentea izan da Malkortxo, bainatzeko leku mitikoa. Toki esanguratsua galdu egin da, beraz.

bitxidenda
DISDIRA
Plaza txiki, 7 - Telf. 943 81 23 67

TABERNA
IOKOTX
Telfnoa.: 943 151086
Enparantza Nagusia

Zoruen estaldura: kortxo, moketa, sintasol...
Paper pintatuan aukera handia
URBISTONDO MARGOAK
"KOLOREAREN ESPARRUAN EZ DUGU MUGARIK"
Salbe Auzunea, 35 behea 20730 AZPEITIA - Urrut.: 943 81 57 81

kutxa
gizarte ekintza

domusa

HERRIAN ERE OZTOPO UGARI EMAKUMEEI

Azpeitiko Emakume taldeak kanpaina berria du martxan, herrian emakumea "erasotua" den guneak salatuz

Nerea Aranburu

Emakumeak historian zehar beti sufritu izan ditu erasoak. Bizitzako hainbat arlotan zapaldua, baztertua eta aldi berean erasotua izan da. Egunero entzuten eta irakurtzen ditugu komunikabide desberdinetan emakumeen aurkako erasoei buruzko albisteak. "Emakumeek pairatzen, sufritzen dituzten erasoetaz mintzo garenean, ez gara bakarrik tratu txar fisiko eta sexualitatera mugatzen. Emakume bat, emakume izateagatik diskriminatua izaten den bakoitzean, erasotua da. Beraz, eguneroko bizitzako zenbait arlotan, bai lan munduan, kirol arloan, komunikabideetan, hezkuntzan eta abar emakumeak erasotuak eta diskriminatuak dira".

Hau dena salatu asmoz, Azpeitiko Emakume Taldeak otsailean beste kanpaina bati ekin zion: "Azaroaren 25ean hain justu, Eraso Sexisten Aurkako eguna ospatu zen.



Egun horretan, hainbat ekintza egin genituen kalera begira dagoen arazoa salatzeko, eta hori izan zen nolabait ondorengo ekintzen abiapuntua. Orain, otsailean beste kanpaina berriarekin hasi gara".

KANPAINAREN ARDATZA. Azpeitiko Emakume Taldekoek kaleratu berri duten kanpainaren helburu nagusia, emakumeak erasotuak diren herriko guneak kaleratzea da. Atera berri dituzten karteletan Azpeitiko mapa bat agertzen da eta mapa horretan herriko zenbait puntu zehatz ikusten dira markatuta, "Azpeitiko emakumeak erasotuak diren gune beltzak". Emakumeak erasotuak izateko aukeragatik lasai ibili ezin diren tokiak dira hain juxtu ere markaturik daudenak. "Nahiz eta mapan agertzen direnak nagusienak eta garrantzitsuenak izan, ez dira dauden bakarrak". Gune beltz horien barruan sartzen dira, besteak beste, eliza katolikoa, ikastetxeak, osasun zentrua, epaitegia eta industri guneak. "Elizaren kasuan, balore kontserbadoreak mantenduz, sexualitate askea bizitzea debekatuz. Ikastetxeen kasuan, emakumeon lorpenak historiatik ezabatuz eta kulturan izan dugun eragina gutxietsiz eta industri guneetan, egiten diren *zabor kontratuak* eta generoagatik dauden lan banaketak eta soldata baxuak, besteak beste".

Emakume Taldekoak egiten ari diren ekintza guztiak ardatz baten inguruan kokatuta daude: "emakumeok sufritzen ditugun erasoak salatzea", dio taldeko kide batek. Baina egun horretaz gain, urteko beste egunetan ere "salaketa egin behar da, jendeak oraindik arazoa hor dagoela jakin dezan eta konturatu daitezen erasoen kontua eguneroko gaia dela". Horren denaren helburua, azaroak 25eko eguna orokortzea da. "Baita herriari erasoen gaiak nola eragiten dion ikustea ere; eta aldi berean, eraso sexisten gaia zabaltzea nahi dugu, emakume orok eguneroko bizitzan sufritzen dugun zerbait delako. Garbi geratzen da berdintasunaren bidean denok eman behar ditugula urratsak".

KARTELEN ERAKUSKETA. Martxoan beste ekintza batzuk ere antolatu ditu Azpeitiko Emakume Taldeak. Horien artean, martxoaren 8an, Emakumeen Nazioarteko eguna ospatzeko egingo diren ekitaldiak. Egun horretan, eguerdian, Azpeitian kontzentrazioa egingo da eta arratsaldean Donostiako manifestazioan parte hartzeko deia luzatuko dute. Emakume taldekoek kartel erakusketa bat ere egingo dute, martxoaren 5etik 12ra bitartean Betharrametan. Erakusketan, Emakume Taldeak orain arte atera dituen kartelak izango dira ikusgai, eta baita, urtero antolatu duten martxoaren 8rako kartel lehiaketako irabazlearen lana ere —aurten hirugarren aldiz antolatu dute—.●

zergatik?

Markatutako guneak:

1. ELIZA KATOLIKOA. "Mendeetan zehar emakumeen zapalkuntzari eman dion bultzadagatik" markatu du Emakume Taldeak.

2. KIROLGUNEAK. "Emakumezkoen kirola ikustezin bihurtzeagatik".

3. INDUSTRI GUNEAK. "Emakumeei ateak ixteagatik; soldata baxuak eta abar".

4. IKASTETXEAK. "Heziketa sexista eta balore baztertzaileak sustatzeagatik".

5. UDALETXEA. "Emakume arloan politika eraginkorrik ez aurrera eramateagatik".

6. EPAITEGIA. "Emakumeen aldeko justiziarik ez delako existitzen".

7. OSASUN ZENTRUA. "Emakumeei bertan eskaintzen zaizkigun zerbitzu mugatuengatik".

8. HERRI OSOA. "Azpeitian topatzen dugun jarrera homofobiko eta erasotzaileagatik, eta festetako tradizio sexista bultzatzeagatik".

9. GUNE BELTZAK. "Emakumeek erasotuak izateko beldurrez ibiltzera kondenatuak direlako".

BEGIRADA ETA ZU

HILEKO GALDERA. Hemendik urte batzuetara, "euskalduna naiz eta harro nago" gazteleraz oihukatzera iritsiko ote gara?

2003ko martxoak, baditu hainbat egun aipatzeko modukoak. Badira egunak egutegian kolore gorriz edo atentzioa ematen duen beste kolore batez margotzeko modukoak. Agian norbaitek urteak ospatuko ditu, agian txotxen bat edo beste izango dugu herrian edo martxoaren 8an, emakumeen eskubideak defendatzera irtengo gara kalera. Nork daki, bere eguneroko egutegian zein egun izango dituen gorriz markatuak, gori-gori, lehertze eguna iritsi zain. Kasu honetan, istorio honetako pertsonaiak gorriz jantziko zuen egun edo hobe esanda, gau hura, gorriz edo atentzioa emateko beste kolore batez, eta ez da gutxiagorako.

Mozorro festa ere badator gurera, urtero bezala eta orain dela zenbait inauteri gertatutako pasadizo bati buruz jardungo naiz ondorengo lerroetan. Gure herriari buruz kanpoko ahotsek asko busti gaituzte, gure izateko eraren nondik norakoaz, gauetako festa giroan erakusten dugun geldotasunaz, jendearekin mantentzen dugun distantziaz eta beste zenbait etiketa jarri dizkigute hainbat unetan. Baina horrelako kontuak etiketa soilak dira, ezbairik gabe.

Ilargi betea zegoen gau hartan. Begiak itxita ere argi eta garbi nabari zitekeen pilota argiztatuaren isla zuria. Olazko Amaren Plazan zuen hitz ordua bere kideekin. Ordu laurden berandutu zen, takoi finetara ohitzeko ez zuen azken astean denborarik eduki eta segurtasun falta hark pausajea nabarmen moteldu arazi zion. Hori gutxi balitz noizean behingo pauso laburrak, luzeagoekin konbinatzeko ere arazoak zituen, izterrak besarkatzen zizkion minifalda zela medio. Kopetan behera erortzen zitzaizkion ile kizkurrak, dantzan ibiltzen zituen aldizkako putzaldiekin. Aurpegian aldiz, koadro oso bat margotzeko adina pintura itsatsia zuen, zirkoko izar baten tankera hartzen zitzaiolarik, emakume eder batena baino gehiago.

Kalea jendez gainezka zegoen inauteri gau hartan, begiradaz josita eta basoetako izotzen taupadak ozen entzuten ziren herriko karrika nagusian. Begiradak alde guztietan galtzen ziren, beste begirada batzuen bila eta ordainetan bestearen begirada edo keinu adierazkorren bat jasotzeko esperoan. Pailazo baten begirada, India batena, Azpeitiar batena, espermatozoide batena eta nola ez ile kizkurra begietan korapilatzen zitzaion harena. Guztien begiradek bazuten halako berotasun bat, ezin zena bere osotasunean jaso, ez bazitzaion hartzaileari zuzenean iristen. Begiradak ez ziren koherentzia batez banatzen, ez ziren guztien begietara iristen, aurkitu egin behar ziren, bila joan eta bi begiradak elkar aurkitzen zutenean, inguruko begiradak desagertu egiten ziren, zarata desagertzen zen bezala eta bi begiradek espazio osoa okupatzen zuten.

Halako zerbait gertatu zitzaion ile kizkurra begietan korapilatzen zitzaion gure lagunari. Musikaren garrasiak komunikazioa eteten zuen taberna batean aurkitu zuen bere begien asegarri izango zen begirada. Begi berde haiek ez ziren inoiz ixten, udako leihoen antzera tabernako argi musikatuen zaporea barneratzen zuten, are ederrago eta distiratsuago eginez. Gorputza mugitzeko modu hark erabat moteldu zuen gure laguna eta tabernan sortu ohi ziren distantzia laburrak, oraindik ere laburrago egin nahi zituen. Begi berdeak gero eta gertuago nabaritzen zituen, kolore-az gain, begi barruko ilargi beltza atzeman zezakeelarik. Ile kizkurra begietan korapilatzen zitzaion mutikoa gero eta urduriago aurkitzen zen, bere aurrean, argien ezpatek itzalak sortu zituzten une berean, mozorroa atzeman baitzion begi berdedunari. Azpeitiarrez mozorroturik irten zen kalera astero bezala begi berdedun mutil hura eta ez zuen arazorik izan irribarreak eskuratzeko edo muxuren bat edo beste eman eta jasotzeko.

Mozorro festan bezala, urteko egun guztietan distantziak labur, irribarreak bero eta begiradak sarkor bihurtzen dira gure herrian. Intentzioak, bizitzako arlo guztietan emaitzak biderkatzeko gaitasuna izan dezake, dudarik gabe. Itxoiten egon ezkero ez zaigu inoiz begiradarik gerturatuko. Aldiz saiatu ezkero, agian ez zaigu begiradarik gerturatuko, baina agian bai. Distantzia soilik fisikoa izatea lortu behar dugu, pausoen bidez gainditu beharreko zerbait. Animu eta ondo pasa mozorro festan.

Uztarria biografia liburuak

Uztarriak dagoeneko argitaratu ditu lau liburu biografikoak

Patxi Altuna liburuaren aurkezpena, otsailaren 8an. / NEREA URANGA

• **EGITASMOA:** 2001ean ekin zion Uztarria Kultur Koordinadorak azpeitiarrei buruzko liburuxka biografikoak argitaratzeari. Horrela, atal historikoa jorratu du.

• **LIBURUXKAK:** Lau liburuxak biografiko atera ditu: 2001. urtean bi argitaratu zituen, Joxe Urbieta *Takolo*-ri (maiatzean, Enekoitz Esnaolak egina) eta Angel Otaegiri (irailean, Iban Arregik egina) buruzkoak. 2002ko irailean, Imanol Eliasi (Mailo Oiarzabalek egina) buruzkoa argitaratu zen. Eta laugarrena, eta azkena, Patxi Altunari (Josune Etxeberriak egina) buruzkoa, aurten, otsailaren 8an aurkeztu da. Egitasmoan lau liburuxka biografiko ateratzea jasotzen zen, eta, beraz, Patxi Altunaren liburuarekin egitasmoa amaitutzat eman da.

• **ONDORIOAK:** Liburuxka biografikoek harrera ona izan dute orohar. Lehen bi liburu biografikoak, Joxe Takolori eta Angel Otaegiri buruzkoak, segituan agortu egin ziren. Imanol Elias eta Patxi Altunarenak oraindik salgai badaude ere, ondo doa bien banaketa. Lau liburuak, Azpeitian ez ezik, Euskal Herri osoan banatu dira, Zabaltzen enpresa banatzailearekin lankidetzan.

Uztarriaren datuak

Argitaratzailea: Uztarria Kultur Koordinadora
Egoitza: Julian Elorza Hiribidea 4, 2.a ezkerra (Azpeitia). Telefonoa eta faxa: 943 - 15 03 58
Posta elektronikoa: uztarria@topagunea.com

Web orria: www.uztarria.com

Posta kutxa: 227, Azpeitia
Inprimategia: Gertu
Tirada: 1.800 ale
Lege gordailua: SS-860/2000

aldizkari honen laguntzaileak

AZPEITIKO UDALA

Gipuzkoako Foru Aldundia

EUSKO JAURLARITZA Kultura Saila

Uztarria Kultur Koordinadorak ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizuna

albiste txikiyek

Patxi Altuna liburua salgai da

Patxi Altuna liburu biografikoa salgai dago herriko liburu denda eta tabernetan: Martinez, Eklipse eta Belaetxe dendetan eta Mendizaletan, Zuhatz eta Pastorkua tabernetan eta Uztarrian ere erosi daiteke liburua. Liburuaren salneurria zazpi euro da. Uztarriako bazkideek, aldiz, dagoeneko jaso dute liburua etxean.

Webguneko bisitak gehituz

Uztarria.com webgunea azkenaldian inoiz baino bisita gehiago jasotzen ari da, batez ere albisteak. Politika eta kiroletako sailkapenak —batez ere, lasterketetakoak— dute bisita gehien.

Zuzenketa

Aurreko zenbakian, Kepa Peñagarikanori egindako elkarrizketan 27. orrialdean argazki oinean Benantxio Karrerari Benantxio Beristain deitu genion. Oker ginen. Barkamenak.

637 bazkide gara jada

EGIN ZAITEZ BAZKIDE UZTARRIAn

Urtean 21,04 euro (3.500 pezeta) / Bestela harpidedun izan zaitezke, doan (kontu korrontearena ez beste guztia bete)

IZEN-ABIZENAK: _____

HELBIDEA: _____

HERRIA: _____ **KODE POSTALA:** _____

TELEFONOA(K): _____ **POSTA ELEKTRONIKOA:** _____

KONTU KORRONTEKO ZENBAKIA (20 digitoak): _____

Julian Elorza Hiribidea, 4, 2.a ezkerra • 227 posta kutxa • Telefonoa eta faxa: 15 03 58 • Posta elektronikoa: uztarria@topagunea.com

Korrika 13a badator. Apirilaren 6an pasatuko da Azpeititik, 12:30ean. AEK Mikelats Euskaltegikoak ikasgelan eta ikasgelatik kanpo lanean aritzearen arrazoi da Korrika 13ren antolaketa

AEK HEMEN ERE GEROA LANTZEN

Ilerea Uranga - Jon Aranburu

Badator Korrika 13, badator Azpeitira, *AEK-rekin herri bat geroa lantzen* lelopean. Maulen hasi, apirilaren 4ean, eta Iruñean bukatuko da, 13an, 2.150 kilometroko ibilbidea. Apirilaren 6an pasatuko da Azpeititik, 12:30ean. "60ko hamarkadaren bukaeran eta 70eko hasieran, euskal kulturak berpizkunde izugarria izan zuen: kantagintzan, literaturan, artean, ikastolak eta gau-eskolak hedatu ziren, euskara batua sortu zen... Izpiritu horri heldu nahi dio, hain zuzen ere, Korrika 13k eta argi utzi euskararen geroa gaur egun egiten dugun lanaren baitan dagoela. Nahiko garai txarrak bizi ditugula eta garai hauei aurre egiten jakingo dugula, hori da Korrika 13ko leloak adierazi nahi duena", dio Olatz Aranguren, Azpeitiko Korrika Batzordeko arduradunak. Horretan dabiltza Azpeitiko AEK Mikelats Euskaltegikoak: Korrika 13 antolatzen.

LEHEN EUSKALTEGIA. Azpeitian AEK-k bi garai izan ditu, ez da Mikelats Euskaltegia AEK-k Azpeitian izan duen aurreneko euskaltegia. 1982an sortu zen Azpeitian Joannes Etxeberri AEK Euskal Eskola, eta 1989a arte jardun zuen. Lehen urteetan euskaltegi bezala aritu zen batez ere, baina 1987an barnetegia sortu zuen. Horretarako eta diru laguntzak jaso ahal izateko Izkilimilia Kultur Elkartea ere sortu zuten euskaltegikoek. Lehen urtean, egoitza Betharramdarretan izan zuen euskaltegiak, ondoren pisu bat alokatu zuten Enparan kalean. Euskaltegitik barnetegi izaterako pausoa ematearen arrazoiak bi izan ziren nagusiki: batetik, ikaslegoaren jaitxiera eta bestetik, 1985eko azaroan Udal Euskaltegia jarri zen martxan.

Garai horretan Euskalduntze Prozesua Azpeitian Bideratzeko Akordiorako proposamena egin zuen Joannes Etxeberri Euskal Eskolak. Eta bertan zioena zera da: "Argi dago lan berbera egiten duten bi euskaltegietarako ez dagoela lekurik. Eta euskaltegi bakar batek ez luke gehiegi izango: EGA titulurako talde gutxi, eta arazoak euskalduntze eta alfabetatze taldeak sortzeko". Hala bada, barnetegi bihurtu zen euskaltegia zena, baina bi urteren buruan ikasle gutxi zituelako itxi egin zen barnetegia eta AEK-k ez zuen beregain hartu nahi izan aurrera jarraitzea.

AUKERA BERRIA. Baina, 1996ko otsailean, euskaltegi berri bat ireki zuen AEK-k Azpeitian, Mikelats Euskaltegia. Orduan ere, Udal Euskategia martxan zegoen Azpeitian, baina AEK-k euskaltegi berri bat abian jartzeko egitasmoari heldu zion. "Udal Euskaltegiaz gainera beste aukera baten beharra ikusten zen, eta AEK-ren eskaintza zabalagoa zela. Azpeitia herri euskaldun bat izan arren, AEK-k beti ere kontzientziazio lana egin izan duelako eta orduan kultura aldetik zer egin bazegoela ikusten zelako". Hiru ikasle talderekin abiatu zen Azpeitian AEK; gero zabalduz joan da Zestoara eta Azkoitira. Gaur egun 9 talde ditu Mikelatsek hiru herritan banatuta. 18 ikaslerekin abiatu zen euskaltegia eta aurten 75 ikasle ditu. "Matrikulazioa orokorrean jaisten ari da euskaltegietan, baina Mikelatsen gutxinaka gehitzen doa", dio Margari Eizagirre Mikelats Euskaltegiko sortzaileetako batek.

Aurten gainera, orain arte ez bezala, Azpeitian AEK-ko ikasle direnek udalaren beka jasoko dute. "Orainarte Mikelatsi Udalak 600 euroko diru laguntza eman ohi zion, baina ikasleek ez zuten inolako diru laguntzarik AEK-n euskara ikasteko. Baina, aurten Mikelatseko Azpeitiko ikasleek ikasturtearen amaieran ordaindutako matrikularen %50a jasoko dute udaletik. Langabeak eta ikasleek, berriz, %75a. Hori bai, klaseetan %85 asistentzia bete beharko dute", dio Jon Puik, Mikelatseko irakasleak.

Euskara irakatsi eta ikasteaz gainera, kultur ekintzak egiten dituzte Mikelatsen. Hilean behin, azokara, erakusketara, elkarrizketak egitera... ateratzen dira ikasgelatik. Orain zeregin handi bat dute Mikelatsekoek, Korrikaren prestaketa. Uztarriakoekin egon ahala Korrikako ibilbidearen kilometroak zehaztera atera dira. Ari dira ari Korrika 13 antolatzen. "*-ika, -ika, -ika, hemen baitator Korrika...*".

"Garai txar hauei aurre egiten jakingo dugula dio Korrika 13ko leloak" **Olatz Aranguren** (Korrika batzordekidea)

"Aurten AEK-ko ikasleentzat udalak diru laguntza ematea lortu dugu" **Ion Pui** (Mikelats AEK-ko irakaslea)

Mikelats euskaltegiko lehenengo hiru irakasleak.


Korrika 10, 1997an izan zen. Gauez heldu zen Azpeitiara. / MIKELATS AEK EUSKALTEGIA

Korrika 12, 2001. urtean izan zen. Azpeitiar ugarik parte hartu zuten orduan ere. / MIKELATS AEK E.

AEK-ko ikasle talde bat klase orduan.

Korrika 11, jendetsua. 1999an. / MIKELATS

Korrika txikian ere ez da jenderik falta. / MIKELATS

Amaia Mendizabal

Mikelats AEK Euskaltegiko irakaslea

zein da?

- **AMAIA.** 25 urte ditu eta azkoitiarra da. Zuzenbideko ikasketak egiten ari da.
- **IRAKASLE.** Mikelats Euskaltegian irakasle 2002ko urrian hasi zen. Azpeitian eta Zestoan ari da euskara irakasten.

"Hasieran zelebre sentitzen nintzen ikasleen aurrean"

Amaia Zuzenbide ikasketak amaitzen dituen bitartean hasi da AEK-n irakasle. Beraz, ikaslea eta irakaslea da. Iaz, irailean, AEK-ko irakaslea izateko beharrezkoa den Glotodidaktika ikastaroa egin zuen. Eta ikastaroa amaitu eta bi astera hasi zen Mikelats AEK Euskaltegian, Azpeitian eta Zestoan, euskara klaseak ematen. Aurreneko aldia du irakasle moduan ari dena. "22 urtez ikasle izan naiz, eta orain irakasle izatera pasa naiz. Hasieran nahiko zelebre sentitzen nintzen ikasleen aurrean. Baina, orain, oso gustora nabil".

Amaiak, EGA titulurako eta alfabetatze klaseak emateaz gain lehen urratsetako ikasleen irakasle ere bada. Hasiera batean beldur pixka bat bazuen, talderik zailena tokatu zitzaiolakoan. Baina gaur egun oso gustura sentitzen da bere ikasleekin. "Oso desberdina da lehen urratseko ikasle bati edo alfabetatzen ari den bati euskara irakastea. Lehenengo urratsekoei ulertzeko modurik errazena topatzen lagundu behar zaie, eta besteei berriz arauak irakatsi behar zaizkie, azterketa bat egiteko gai izan daitezen".

> "Ikasleek euskaraz ikasteko arrazoi desberdinak izaten dituzten arren, denak ezerezetik abiatzen dira eta bi hilabetetan izugarri aurreratzen dute"

Motibazio aldetik, lehen urratseko ikasleek gehiago motibatzen dutela dio. "Ikasle batzuk lana bilatzeko ikasten dute euskaraz; beste batzuk, berriz, familiakoekin euskaraz hitz egiteko aukera izan dezaten. Arrazoi desberdin asko izan arren denak ezerezetik abiatzen dira eta bi hilabetetan izugarri aurreratzen dute".

AEK-ko irakasle izatea ez da euskara irakastera mugatzen. Orain Korrika antolatzen buru belarri dabiltza. Horretaz gain Euskaltegiko bilerak izaten dituzte, didaktikari bat ere etortzen zaie hilean behin, eta euskalgintzan diarduten eragileekin harremanak mantentzen saiatzen dira, hala nola, Baite Euskara Elkartearekin, Uztarria kultur koordinadorako taldeekin...

Ikasleekin duten tratua nabarmentzen du Amaiak. Hilean behin kultur ekintza bat egiten dute, talo ikastaroak, afariak, irteerak.... Horrela, ikasleekin harremanak lantzen dituzte, eta orain arte lortutako emaitzarekin gustora dago. Lagun giroa egon arren ikasleek ondo bereizten dutelako lana noiz egin behar duten eta noiz ez.

Jorge Arozena Gonzalo

Mikelats AEK Euskaltegiko ikaslea



zein da?

- **JORGE.** Argentinarra da (La Pampa, General Pico herrikoa). 28 urte ditu eta albaitaria da.
- **IKASLE.** Iaz hasi zen euskara ikasten AEK Mikelats Euskaltegian, aurten ere horretan ari da.

"Euskara ikastea zaila da, baina bizitza zailagoa da"

Jorge albaitaria da, 2001eko ekainean etorri zen Argentinatik, La Pampa probintziako General Pico herritik Azpeitira. Etorri eta lau hilabetera hasi zen AEKn euskara ikasten. "Nire birraitona Euskal Herritik Argentinara joan zen, hortik datorkit Arozena abizena eta orain ni etorri naiz". Euskara barrutik ateratzen zaiolako, barruak agintzen diolako hasi da ikasten. "Euskara hizkuntza polita da eta nire abizena euskalduna da gainera". Euskaraz denek hitz egiten ez duten arren, jende askok mintzatzen duela dio, eta hori interesgarria iruditzen zaio Jorgeri.

Piskanaka eta "xuabe-xuabe" ikasten ari omen da. Etxean gutxi ikasten omen du, baina lanean, euskaltegian eta kalean etxean ikasten ez duen hori ikasten saiatzen da. Euskaraz asko ulertzen duen arren, oraindik "indioen moduan" hitz egiten duela dio berak. Baina hala eta guztiz ere, kalean dabilenean eta lanean ari den bitartean euskaraz hitz egiten saiatzen da. "Hori norberak duen gogoaren araberakoa da. Baina lotsarik gabe hitz egiten saiatuz gero, gehiago ikasten da".

> "Euskara barrutik ateratzen zaidalako, barruak agintzen didalako ari naiz ikasten. Euskara hizkuntza polita da eta gainera abizena ere euskalduna dut"

Bere lanbidea dela-eta, baserritarrekin tratu asko du. "Jende desberdina" dela dio Jorgek. Hitz egiterako orduan borroka antzeko bat izaten dute, "gaztelaniaz mintzatzen ez dira oso trebeak, eta ni ere ez euskaraz. Baina denetik dago". Jorgerentzat euskaraz ondo hitz egitea helburu bat da. Baina, gaur egun ez dauka modu horretara planteatuta. Horrela balitz, etxera joan eta liburuen aurrean jarri beharko lukeela, eta utzi egingo zukeela dio.

Jende askok dio, euskara ikastea zaila dela. Horren aurrean Jorgek arrazoia ematen die, baina "bizitza zailagoa" dela gaineratzen du. Bere iritziz, Euskal Herrian bizitzeko merezi du euskara ikasteak. Baina, hala ere ez du ezinbestekotzat jotzen hemen integratzeko. Eta bere iritziz jende askok horregatik ez du ikasten.

AEKn dagoen giroa oso ona dela dio, nahiz eta adin desberdineko ikaskideak izan bere taldean. Euskaltegira askotan beranduago iritsi arren, ondo konpontzen dela dio. Gustura egongo ez balitz utzi egingo zukeela dio.

Lurdes Valor

Mikelats AEK Euskaltegiko ikasle ohia

zein da?

- **LURDES.** 32 urte ditu eta dendaria da.
- **AEK-KO IKASLE OHIA.** Duela sei urte hasi zen AEK-n. Seigarren urratsa arte, baina talderik ez zelako osatu utzi egin behar izan zuen.

"Utzi egin nuen euskaltegia, talderik ez zelako osatzen"

Lurdesek duela sei urte hartu zuen Mikelats AEK Euskaltegian euskara ikasteko erabakia. Aurrez Udal Euskaltegian jardun zuen, baina AEK-n probatzea pentsatu eta halaxe egin zuen. Bertan lau urte igaro zituen euskara ikasten, baina duela bi urte utzi egin behar izan zuen, maila bereko nahikoa ikasle ez zegoelako. Seigarren urratsera iritsi zenean, hain zuzen ere. "Zortzi lagun behar ziren taldea osatzeko eta ez ginen kopuru horretara iristen". Baina taldea osatuz gero berriro ere euskara ikasten jarraituko lukeela dio.

Bi euskaltegien artean aldea dagoela dio Lurdesek. "Udal Euskaltegian gramatika aldetik gehiago irakasten zuten eta AEK-n, berriz, hitz egiten gehiago". Mikelatsen hirugarren urratsean hasi zen Lurdes eta bertan zuten giro ona gogoan du. "Giro paregabea zegoen. Elkarrekin parrandak-eta askotan egiten genituen. Maisuak ere oso onak ziren. Askotan gogorra izaten zen lanetik atera eta euskaltegira joatea. Astean guztira zortzi ordu igarotzen genituen, baina tamaina hartzen genion".

> "Askotan gogorra izaten zen lanetik atera eta euskaltegira joatea. Astean zortzi ordu igarotzen genituen euskaltegian baina tamaina hartzen genion"

Lurdesen esanetan, AEK-n ikasi du euskaraz mintzatzen. "Asko *soltatu* nintzen euskaraz hitz egiten". Udal euskaltegian berriz, idazten ikasi zuela dio. Bere lanbidea dela eta paper asko bete behar izaten ditu. "Nire nagusia euskalduna da, baina askotan nik zuzendu behar izaten dizkiot paperak". Idazten jakitea beharrezkoa dela uste duen arren, garrantzitsuago dela dio hitz egiten jakitea. Hitz egiterako garaian aditzekin gaizki moldatzen dela dio. "Askotan gertatzen zait zerbait ondo esatea nahi eta ezin. Baina orain lehen baino gutxiago lotsatzen naiz euskaraz hitz egiten".

Euskara lanean egunero erabiltzen duela dio. "Etxean gutxiago erabiltzen dut, baina ilobekin euskaraz hitz egiten dut. Askotan gaztelerazko hitzak nola esaten diren galdetzen didate". Euskaraz ikastea beharrezkoa dela uste du.

AEK-n zebilela korrika antolatzen lagundu zuela ere gogoan du. "Azpeititik pasa zenean korrikan atera ginen". Beste batean korrika moto gainetik grabatzen ibili zen Lurdes. ●

UZTARRIAKO
BAZKIDE EGIN:
943 - 150358
izena + helbidea
+ kontu zenbakia
21,04 euro

Bazkideek jasoko dituzte:

- liburuxka biografikoa
- mendi gida
- literatura gehigarria
- efemerideen liburua

uztarria

zeren zain zaude, dagoeneko 620 bazkide gara!

datue

300 etorkin daude erroldatuta Azpeitian; Espainiako Estatuko jatorri dutenak kontuan hartu gabe. Azpeitiko Udaleko Gizartekintza Sailak emandako datua da.

esaldiye

"Euskararekiko jarrerak bi eratakoak dira: jarrera teorikoak eta praktikoak. Jarrera teorikoek ez dute gehienetan ondorio praktikorik, ez dira inoiz hizkuntza jokabide bihurtzen."

J. Manuel Odriozola
(EHEko kidea)

esaerie

"Mozorro zinko mukitzu, sobera sobera badakizu"

liburutik ttak

"Mapak ez du *existitzen dena* bakarrik irudikatzen; lurralde propioaren pertzepzio sakonaren etorkizuneko proiekzioa ere irudikatzen du, eta ezagutza politiko inplizitua erreibindikatzen du. Horra hor, esate baterako, munduan ezaguna den kasu bat aipatzearren, Kurdistan herriak publiko egiten duen bere ametsezko mapa, beren mugak irmo mantendu gura dituzten bost estaturen gainetik eraikitako erreibindikazio idealean".

NOR ikerketa-taldea 'Hedabideak eta Euskal Herria'. Udako Euskal Unibertsitatea argitaletxea. 2000. urtea.

kontue da... Imanol Elias Odriozola (idazlea)

AUKERATUTAKO AGINTARIEN EGINKIZUN BEREZIA

Era guztietako aldaketak izan ditu herriko agintarien aukeraketak Azpeitian. Lehen urteetan, irailaren 29an, Mikel donearen egunez egingo ziren, urte askoan gainera, urte bakar batetarako aukeratuz. Gero, agintaritzarako denboraldia eta eguna aldatu zen, abendura, urtarrilaren lehen egunera eta abar. Alkate bat izendatu ordez, bi ere izendatuko ziren denboraldi batean, baina nahiko iskanbila sortuz behin baino gehiagotan beraien artean.

Urteetan aldatu gabe iraungo zuena, zera zen: agintariek zin egitea langintza egoki beteko zutela; horretarako parrokian bilduta. Beste eginkizun bat ere bete behar zuten, agintaritza lortu eta egun gutxi barru gainera, ordenantzak horrela agintzen baitzuten. Herriaren lurralde osoa ezagutzea, mugarriak banan-bana ikustea, behar bezala zeuden edo ez jakiteko.

Garaiko agiriek diotenez, izendatutako agintari berriek erabakitzen zuten eguna, laguntzaileekin egun osorako irteteko, mendi, baso eta erreka ertzetan ziren seinaleak ikustera, baldin mugarriren bat bere tokitik aldatuta edo kenduta ikustean, berehala aginduz egokitu eta berriro jartzeko. Baliagarria egiten zitzaien benetan ibilaldia beraien esku zuten herriaren lurralde osoa ezagutzeko. Ezin da jakin, oinez, zaldi edo asto gainean egiten zuten bide luzea.

Urteak igaro hala, ordea —seguruenik eginkizuna erosoago egin nahian—, talde handia bilduko zen, batera eta bestera talde txikietan banatu eta bakoitzak aurrez izendatuko alderdiak ikusteko. Baina, egun osorako nahiko janari eta edari eramaten zuten, horrela gastu handiak sortuz herriari. Urtero egin beharreko langintza, bi urtean behin egitea erabaki zuten

garai bateko Azpeitiye ...Pedro Aldalurrek kontatua

Kupelen inguruan elkartuta

Sagardo garaia da. Orain urte batzuk ere, ohitura handia zegoen sagardotegietara joateko; eta sagardotegi ugari

Nerea Aranburu

Sagardotegietan jendea biltzeko garaia da, sagardo garaia. Apirila bitartean jende askoren bisita izango dute Euskal Herriko sagardotegiek, jendea kupelen bueltan elkartuko da, baita Azpeitian ere.

Pedro Aldalur oso sagardotegi zalea izan da beti: "lehen, orain baino gazteago ginenean askotan joan ohi ginen lagun kuadrila inguruko sagardotegiren batera". Sagardoaren garaia heltzen zenean, "herriko jende asko elkartzen ginen sagardotegiko mahaiaren inguruan". Bere esanetan, "oso giro alai eta herrikoia sortzen zen. Behin afaldu ondoren, eta sagardo tragoen ondorioz jendea alaiago jartzen zen. Orduan hasten zen giroa sagardotegian, batzuk kantatzen eta beste asko, berriz, bertsotan".

Azpeitia inguruan ere baziren garai batean sagardotegi ugari, nahiz eta gaur egun horietako asko desagertu egin diren. "Orain urte dexente Azpeitian bertan sagardotegi ugari zegoen, alde zaharrean bertan bazeuden batzuk". Pedro Aldalur eta sarritan joaten ziren herriko sagardotegietara, "baina baita beste herrietako zenbaitetara ere, batipat Astigarraga aldera".

ASTEAN BEHINEKO ZITA. Sagardoaren garaian, aitzakia polita izaten da sagardotegiak bisitatzeko. Pedro Aldalurren hitzetan, "gure garaian orain baino sarriagotan joaten ginen sagardotegira afaltzera. Egia da, ordea, orduan herri inguruan aukera gehiago zegoela gaur egun baino". Urte haietan herritik ateratzeko aukera gutxiago zeuden baina inguruan sagardotegi ugari. "Gaur egun, ordea, alderantziz gertatzen dela uste dut. Gainera jendeak Hernani-Astigarraga aldera joateko ohitura handia du orain".

Pedro Aldalur eta bere lagunak astean behin joan ohi ziren sagardotegira, "asteroko pasadi-

Garai bateko Azpeitia eta inguruneak. / AZPEITIA HISTORIAN ZEHAR LIBURUA

● **HERRIKO LURRAK.** Udal agintariek, aukeratuak izan ahala herriaren lurralde osoa ezagutu behar izaten zuten; ordenantzak aginduta agintariek, gero, hiru edo bost urtean behin, eta azkenean ezerezean gelditzeko...

Aspaldian egin ez denez, aukeratu behar ditugunei, zergatik ez diegu eskatzen, herriaren lurralde osoa ezagutzea, guztiekin gogora daitezen? Hori bai, gastu handiegirik egin gabe....

Mahaiaren bueltan. / AZPEITIA HISTORIAN ZEHAR LIBURUA

> "Azpeitian bertan garai batean sagardotegi ugari zeuden, alde zaharrean ere bazeuden sagardotegi batzuk"
>
> **Pedro Aldalur**

zoa egin asmoz. Azkenean ohitura bat bihurtzen da". Oso oroitzapen onak gordetzen omen ditu ordungo sagardotegiko garai haietaz. "Niri betidanik gustatu zait sagardotegien inguruan sortzen den giro berezi hori".

URTEKO BISITA. Gaur egun, ordea, jada utzia du sagardotegietara joatea. "Orain urteak igaro zaizkigu eta ez da garai haietan bezala. Hala ere, urtean behin beti egin ohi dugu lagunok afaritxoren bat inguruko sagardotegiren batean, baina oso kontatuak izaten dira egiten ditudan irteerak". Pedroren ustez, ordea, gaur egungo sagardotegiko giroa aldatu egin da. "Egia da, gaur egun jendeak eusten diola ohiturari, jende asko joaten da eta horrek poza ematen du. Baina, bertako giroa asko aldatu dela esango nuke, lehen euskal giro gehiago nabarmentzen zen sagardotegietan".

abizena

EGAÑA

- **Banaketa semantikoa.**
  - E(gi)-: mendi-mazela.
  - -Gaina: gaina, gailurra.
- **Esanahia.** Mendi gaina.
- **Armarria.** Aintzinakoa, Aizarnako Egaña garikoa etxekoa da: zilarrean, gurutzean zitori hori lorea gorriz. Bost urrezko taulaz kargatua.



- **Abizenaren kokapena.**
  - Aizarna.
  - Azpeitia.
  - Bizkaia.
  - Nafarroa.
  - Txile.
- **Abizenaren hedapena.**
  - Aizarna.
  - Azpeitia.
  - Oñati.
  - Bilbo.

'www.paisvasco.com/heraldica' webgunetik hartua dago.

komunikabidiek

GAZTEEK EGINA GAZTEENTZAT, GAZTESAREA

Martxoaren 1ean aurkeztu zen: www.gaztesarea.org. "Euskal Herriko gazteen arteko korapiloa osatu nahi duen egitasmo komunikatiboa da". Komunikazio zuzena, norabide askotarikoa, joan etorrikoa, horizontala, partehartzailea eta demokratikoa bultzatu asmoz sortu da. Internet atarian landu nahi diren atalak honakoak dira: informazio agentzia, ikasleena, sexualitatea, kultura, musika, eztabaida foroa, azoka... Gazteontzako gune berria, berri ona Euskal Herriko gazteentzat, nola nahi ere.

gertuko pasadizue

MOZORROTU ETA INSPEKZIORA

● **JESUS RUIZ DE ARGANDOÑA 'KEUTTIN':** "Lehenengo aldiz, orain dela 35 urte edo mozorrotu nintzen, kalean genbiltzala agoazila etorri zitzaigun. Ezin omen genuen mozorrotuta ibili, galerazita zegoelako eta inspikziora eraman gintuen. Alperrikakoak izan ziren gure kexuak (...). Inspikziora joan behar izan genuen bada agoazilarekin batera, eta han zorte galanta izan genuen. Inspektorea Tolosaldekoa zen. Hangoa izanik oso ondo ezagutzen zituen ihauteriak eta lasai joateko esan zigun".

'Azpeitiko Jaiak' liburutik hartua. Txakel-ek argitaratua. 2000. urtea.

Astelehen karnabaleko irudi bat.

baserria

BABARRUN ELKARTEA AZPEITIAN

Tolosako Babarrun eta Urola-Kostako Mendi Nekazaritza Elkarteek martxoaren 11n, 12:00etan, Azpeitiko Sindikatu Zaharrean bilera antolatu dute, batez ere babarrun beltza produktoreei.

Tolosako Babarrun Elkarteak Gipuzkoa osoko babarrun produktoreak biltzen ditu. Tolosako babarrunak duen ospeak eraginda, kontsumitzaileen eskaera gaur egun dagoen eskaintza baino handiagoa da.

osasune Julian Bereziartua (medikua)

● **URA.** Milubelarra askotarako erremedio ona da

MILUBELARRA: LANDARE USAITSUA

Gure artean oso arrunta den landarea da. Auzoetako bide-bazterretan sarri ikusten duguna; metro batekoak ere izaten dira batzutan eta urtero berritzen dira. Honen loreak multzotan bilduta azaltzen dira eta frutuak edo haziak anis zapore bizia dute.

Medikuntzan erabilera ugari ditu. Haziarekin egindako infusioa adibidez, jateko gogorik ez dagoenean, haize-mina dugunean eta baita idorreria arina dugunean ere erabiltzen da oraindik. Arnasa-bideetako gaixotasunen bat, katarroa edo bronkitisa, dugunean ere sendabide edo erremedio ona da. Gaur egungo bizimodu lanpetu honetarako egokia ez badirudi ere, ezaguna da bere gaitasun galaktogenoa. Bularra ematen ari diren amentzat oso egokia da, esnea sortzea suspertzen baitu.

Begietako konjuntibitisa dugunean, begiak kamamila-urez garbitzeko ohitura dugu. Milubelarren urak ere helburu hori bete dezake. Zotina sortzen denerako ere erremedio arrakastatsua da. Eta diuretikoa da.

Eragin gehiena duten landare honen elementu kimikoak *fenchona* eta *anetol* dira. Horregatik, nahiz eta zaila izan, gehiegi kontsumituz gero, toxikoa izan daiteke eta epileptikoek izaten dituzten antzeko konbultsiok sortu ditzake.

UROLA IKASTOLA
AZKOITIA - AZPEITIA BHI

- DBH
- BATXILERGOAK
- HEZIKETA ZIKLOAK

KALITATEA ZURE ZERBITZURA

Altamira Auzoa z/g
20720 AZKOITIA (Gipuzkoa)
Tel.: 943 85 21 74 / 943 85 2265
Fax.: 943 85 28 67
E - mail: azkoitia@urola.hezitek.net

Perdilegi, 3
20730 AZPEITIA (Gipuzkoa)
Tel.: 943 81 26 65 / 943 81 37 70
Fax.: 943 81 66 20
E - mail: azpeitia@urola.hezitek.net

Perdilegi, 2
20730 AZPEITIA (Gipuzkoa)
Tel.: 943 15 02 28 Fax.: 943 81 16 94

AZPEITIKO IKASTOLA
KARMELO ETXEGARAI

HAUR HEZKUNTZA-LEHEN HEZKUNTZA

KALITATEZKO EUSKAL HEZKUNTZA

Euskal Herria, 50
Tel.: 943 812697 - Fax.: 943 150830
E-mail: keikastola@jet.es

20730 AZPEITIA
(Gipuzkoa)

BERTAKO HARAGIA... ...GURE HARATEGIETAN

KALITATEKO
EUSKAL OKELA
CARNE DE VACUNO DE CALIDAD DEL PAIS VASCO

USKO LABEL
KALITATEA

Beloki
Kale Nagusia, 75 Tel.: 943 85 04 62
AZKOITIA
Jose Artetxe, 21 Tel.: 943 151392
AZPEITIA

PATXO
EDUARDO BERASATEGUI
Harategi eta Zerritegia
Euskal Herriko Haragirik Onena
San Inazio Kaleko 12an
Urrut. 943 81 14 98

MATXIN
bertako okela
HARZUBIA, 26 D
TEL. 81 60 25
ETXEKOA 15 00 03
AZPEITIA

Harategia Odriozola
Harategi Espezializatua
Arana Kalea, 14
Urrut.: 943 81 1015

J.B. San Sebastián
HERRIKO HARAGIA - HERRIKO TXERRIA
ETXEKO URDAIKIA
FORU HIBILBIDEA, 4
TFNOA. 81 15 94
AZPEITIA

ZABALA HARATEGIA
KALITATEZKO HARAGIA
BUSTINZURIKO ERRIBALA, 8
TFONOA.: 943 811671



NOLA EGITEN DA SOKA?

Zezeneko soka mutilek prestatzen dute, Donostiatik ekarrita; Espainian egiten da soka, eta materiala Asia eta Afrikakoa da

Oskar Osinalde eta Aitor Cordoba sokamutilak, soka prestatzen, orain hiru aste. / E. Esnaola

Enekoitz Esnaola

Datu historikoei begiratu bat emanez gero, 1518. urtean jada Azpeitian zezena izaten zela ikus daiteke; sokamuturra, alegia. Baina zezena beti ez da ibili izan sokarekin, libre ere ibili izan delako. Ez oso aspaldi, gainera; izan ere, oraintxe dela hiru bat dozena urte Pelotalekuan ibiltzen zuten zezena, solte, parkean. Kondairak dio gaur egun Ilunpe soziedadea dagoen etxe barrura ere sartu zela behin zezena, Meltxoraren etxeko atea jo adarrarekin, Meltxorak ezagunen bat zelakoan atea ireki eta orduantxe bisita ederra!...

Pelotalekuko ohitura hura, ordea, desagertu zen, eta badira urte ugari sokari lotuta ibiltzen dela zezena sansebastianetan eta Inauterietan. Baina nola egiten da soka?

Fernando Bereziartua *Pikua*-k urteetan egin izan du soka, eta lehengo urtetik gaur egungo sokamutilek beraiek egiten dute, Udalak kuartel zahar azpian utzitako lokalean. "Orain dela bi Xipri Aranberri sokatumil ohiaren baserrira joan ginen taldeko laupabost lagun, soka nola egiten den ikastera. Hiru bat egunean han aritu ginen Xipriren baserrian, Nuarben, trikimailu guztiak ikasi nahian, eta lehengo urtetik guk geuk izan dugu soka prestatzeko ardura", dio Oskar Osinalde sokamutilak.

Lokala bera oso txikia da, hamabi bat metro karratukoa, eta "baina zerbait da" eta "gustura" egoteko moduan dira sokamutilak, Oskarrek esaten duenez.

Beraien lana ez da soka bera egitea, eskatzen dituzten sokak uztartzea eta zezenerako prestatzea baizik. Donostiako denda batetik ekartzen dute, Arenzana dendatik. Donostiako dendarik zaharrenetakoa da Arenzana, 102 urte dituelako, eta sokak, kortxoak eta antzeko produktuak saltzen ditu. "Baina Azpeitira bidaltzen dugun soka ez da hemen egindakoa", kontatu dio Uztarriari Paco Arenzana dendajabeak. "Espainiatik, Ciezatik (Murtzia) ekartzen digute, hango enpresa handi batetik. Garai batean Murtzia alde horretan sokak egitera dedikatzen ziren enpresa gehiago zegoen, eta orain guri ekartzen diguten hori da nagusietakoa", dio Paco Arenzanak.

KALAMUZ EGINA. Kalamuz (*cáñamo*, gazteleraz) egindako soka da zezenekoa, baina material hori ez da Murtziakoa bertakoa, Mozambiketik, Madagaskartik edo Filipinetatik (Manila hiriburutik) ekarritakoa

● Sokamutilek lehengo urtetik kuartel zahar azpiko lokal batean prestatzen dute soka; ordu eta erdi behar da bat prestatzen

baizik. Gainera, gaur egun ez da kalamu hutsekoa, linuarekin nahastuxe egindako sokak direlako, "mutilentzat eskurako ez hain lakarrak izateko, gozoago baizik", Arenzanak kontatzen duenez.

Mutilek soka eginda jasotzen dute. Bi soka mota, hain zuzen ere. Bata bestea baino meheagoa: meheena 26 milimetroko lodierakoa da eta bestea 36 milimetrokoa. Meheena 50 metrokoa da eta bestea 30 metrokoa jasotzen dute baina gero lodia moztu egiten dute, zazpi bat metrotan utziz. Eta orduan hasten da beraien lana. Soka bana puntatik 40 bat zentimetro askatzen dute, punta bakoitzean lau hari soltean geratzen dira, eta soka lodiko eta meheko zortzi hari muturrok ezkontzen hasten dira, uztartzen, hari finenak soka lodira pasatuz eta hari lodienak soka finera, azkenean soka lodia eta mehea bat eginda utzi arte.

Soka lodia zezena lotuta egoten den lepokora lotua egoten da, eta hor ere soka puntan hari solteak egin, buelta eman lepokoari eta halaxe prestatzen dute parte horretako soka. "Zezena topera iristen denean —dio Oskar Osinaldek—, kantoiekin-eta kontuz ibili beharra dago, soka ez eteteko. Orduan, kantoi parean-eta hobe izaten da soka lodia harrapatzea eta ez fina, hartara zailagoa izango delako puskatzea. Eta tokian-tokian soka bera luzeago edo motzago jartzen dugu; kontrolatua dugu hori". Azken batean, soka bakoitza 50-55 bat metrokoa da.

Uztarria sokamutilen lokalera joan zenean, Aitor Cordoba taldekidea ere lanean ari zen Oskarrekin batera, "baina batek bakarrik ere presta dezake soka", zioen Aitorrek. Aurten, sansebastianetan irten du aurreneko aldiz sokan berak, eta orain soka prestatzean "ikaste prozesuan" dabil. "Horregatik" utzi diote "lanik errazena, bi sokak uztartzeko lana, lepokora lotze hori delikatuagoa delako", Oskarrek dioenez. Soka bakoitzeko lepoko bat ere erabiltzen du gaur egun. Denera, ordu eta erdi inguru behar omen da zezenerako soka bat prestatzen eta egokitzen.

Gaur egun irtenaldi bakoitzeko soka berria erabiltzen dute, "seguruago egoteko

Haritz, orain bi urte, zezena atera aurretik, soka ateratzen. / Iñaki Uranga

Haritz eta Oskar, soka biltzen. / Iñaki Uranga



Orain dela hamar bat urte soka eten egin zen Harzubian, irudian ikusten denez. / Jaiak Liburua

● Soka mehea eta lodia uztartu egiten dituzte, eta zezenak lepokoan lodia izaten du, hausturak saihestearren

betiere", ez dute lehortzen-eta uzten, "soka dezente izorratzen baita arratsalde batean, are gehiago euria egiten duenean", Oskarrek esaten duenez, "eta Udalak arazorik ez daukanez sokak ordaintzeko, ba hobeto".

MERKE. Arenzana dendakoak dio 50 metroko soka finak 186,06 euro balio dituela. Soka lodia, berriz, 30 metrokoa saltzen die Arenzanak eta soka horrek 243,65 euro balio ditu; mutilek soka bakoitzerako lodi hori zazpi metrotan uzten dutenez, 56,85 euro. Beraz, zezenerako ateratzen den soka bakoitzak 240 bat euro balio ditu. Huskeria.

Arenzanak esaten du beraiek behintzat ez dutela sokamuturrerako halako sokaren eskaerarik. Zezenak ere txikiagoak izan beste tokietan! Eta ohitura ere desberdina, beste herrietan ez delako kalez kale ibiltzen zezena. "Hemen, Azpeitian, zezenek pisu aldetik tope bat dute, baina gertatzen da zezen txiki samarrentzat soka hau oso astuna dela, leher eginda bukatzen dutelako pisuarekin", dio Oskar Osinaldek. Lehen aldean, ordea, zezen gehiago ateratzen dituzte; lehen, arratsalde bakar batean hiru edo, eta garai bateko sokamutilek kontatzen dutenez, "zezenak mingaina kanpoan zuela bukatzen zuen, ezinean", eta gaur, aldiz, sei-zazpi ateratzen dituzte.

Soka segurua den arren, inoiz eten edo puskatu izan da. Azkeneko aldiz, esate baterako, iaz, sansebastianetan, Eliz kaleko eta Erdi kaleko kantoian, Erdi kalekoan. Plazan harrapatu zuten. Harzubian, Eliz kalean edo Enparan kalean ere puskatu izan da soka.

Hautsi gabe ere badu, ordea, sokak arriskua. Tope egiten duenean tenkatzen denean, adibidez; 1980ko hamarkadaren hasieran Luxiano Lazkano orduko alkateak bernezurra hautsi zuen. 1899koa, ordea, bitxiena: bi azpeitiarrek soka moztu zuten; Azpeitiko Udalak parte sartu eta epaiketa eta dena izan zen.

Sokaren istorioak. Afrikan eta Asian hasten direnak, Azpeitian bukatzeko. ●

telefono zenbakiyek

ERAKUNDEAK - TOKI PUBLIKOAK

Udaletxea	15 72 00
Udaltzaingoa	15 13 13
Suhiltzaileak	112
Azpeitia Lantzen	15 71 83
Iraurgi Lantzen	85 11 00
Nekazal Bulegoa	81 24 85
Iturritxiki Ludoteka	15 11 79
Zapo Txoko / GIB	15 71 61
INEM	15 04 02
Kiroldegia	81 30 69
Igerilekua	81 41 21
Ertzaintza-Azkoitia	85 10 00
Aitonena I	81 51 71
Aitonena II	81 23 89
Epaitegia	81 25 55
Ingurugiro Etxea	81 24 48

OSASUNA

Anbulategia	81 51 00
Anbulategia-Iarrialdiak	81 12 01
Asepeyo	81 44 00
Gurutze Gorria	81 32 97
DYA-Donostia	46 46 22
SOS Deiak	112

KOMUNIKABIDEAK

Uztarria herri aldizkaria	15 03 58
Azpeitian Zer?	81 11 00
Deia (berriemailea)	72 57 75
DV (berriemailea)	15 09 94
Egunkaria	943-30 02 22
Gara (Herriak Saila)	943-31 69 99
Arrate Irratia (berriemailea)	81 26 32
Loiola Herri Irratia	81 44 58
Euskadi Irratia	943-01 23 00
Kaito Telebista	81 53 35

ALDERDI POLITIKOAK

EAJ - PNV	81 55 70
Batasuna	15 12 15
EA	81 00 11

SINDIKATUAK

ELA	81 34 46
LAB	15 13 56
EHNE	81 39 28

IKASTETXEAK

Betharram	81 16 68
Ikasberri	15 12 46
Iraurgi	81 02 10
Jesusen Alabak	81 22 49
Karmelo Etxegarai	81 26 65
Milagrosa	81 63 80
Urola BHI	15 02 28

KULTURA - EUSKARA

Baite Euskara Elkartea	[oraindik ez]
Euskara Patronatoa	81 45 18
Udal Euskaltegia	81 19 47
AEK	15 10 89
EHE	15 10 89
Udal Liburutegia	15 71 95
Loiolako Liburutegia	81 65 08
Uztarria Kultur Koordi.	15 03 58
Antxieta Etxea	81 35 40
Kontseilua	943-59 12 00

BESTERIK

UGLE (Urolako gay-lesbia.)	273 posta
Euskaltel-informazioa	900-84 00 65
Telefónica-informazioa	1003

farmaziyek gauez

MARTXOAK 1-2-10-11
Ruiz (Azkoitia). 85 19 66

MARTXOAK 3-8-9-20-26
Garcia. 81 12 74

MARTXOAK 4-21-24-29-30
Zulaika. 15 03 34

MARTXOAK 5-17-22-23-25
Aranburu. 81 13 50

MARTXOAK 6-18-28
Beristain. 81 19 49

MARTXOAK 7-19-27
Etxebeste. 81 59 74

MARTXOAK 12-13-14
Gisasola (Azkoitia). 85 12 35

gune publikuek irikite

UDALETXEA
Astegunak: 9:00-13:30
Larunbatak: 9:00-13:00

IXPIXIOA
Egun osoz irekita

IGERILEKUA
Astelehenak: 14:00-21:00
Beste astegunak: 7:00-21:00
Larunbatak: 10:00-13:00, 16:00-20:00
Kanpoko igerilekua: Ekaina arte itxita

KIROLDEGIA
Astelehenak: 9:00-13:00, 15:00-21:00
Beste astegunak: 15-00-21:00
Larunbatak: 10:00-13:00, 16:00-20:00

UDAL LIBURUTEGIA
Astegunak: 10:00-13:00, 16:00-20:00
Aste Santuan, udan (abuztuan itxita) eta Gabonetan: astegunetan, 9:00-13:00

autobusen ordutegiyek

JOATEKO

AZPEITIA-ZESTOA-DONOSTIA
Astegunak: 6:50 (1), 7:40 (1), 8:10 (3), 9:00 (1), 10:00, 13:10 (1), 14:00 (1), 15:10, 16:10, 18:45 (2), 19:45 (2)
Larunbatak eta abuztuko astegunak: 7:50, 10:00, 13:40, 15:10, 16:10, 19:15
Igandeak eta jaiegunak: 15:10, 19:15
Enpresa: La Guipuzcoana
Oharrak: 1: Eskola egunetan 'Este'-tik pasatzen da; 2: Sarrera Amaratik; 3: Eskola egunetan soilik

AZPEITIA-EIBAR-BILBO
Astegunak: 6:30, 13:00, 18:30
Larunbatak: 9:30, 14:30, 18:30
Igandeak eta jaiegunak: 9:30, 19:30
Enpresa: Pesa

AZPEITIA-EIBAR-BILBO
Astegunak: 6:38, 07:20,13:20
Enpresa: Piper Unibertsitate Elkartea

AZPEITIA-AZKOITIA
Astegunak: 6:55, 7:25, 7:50, 8:25, 9:25, 9:35, 10:15, 10:25, 11:25, 11:50, 12:25, 13:25, 14:25, 14:35, 15:25, 16:25, 16:35, 17:25, 18:25, 19:15, 19:20, 19:25, 20:25, 22:25
Asteburuak eta jaiegunak: 7:00, 7:40, 8:40, 10:15, 10:40, 11:20, 12:45, 13:20, 14:40, 16:40, 17:05, 17:20, 18:40, 19:15, 19:35, 19:40, 21:35, 21:40
Enpresa: EuskoTren

AZPEITIA-ZESTOA-ZUMAIA
Astegunak: 6:30, 7:10, 8:15, 9:10 (1), 10:10, 11:10, 12:10, 13:10, 14:10, 15:10, 16:10, 17:10, 18:10, 19:10, 20:10, 21:10
Asteburua eta jaiegunak: 7:25, 9:25 (2), 10:25, 11:45, 12:25, 13:45, 14:25, 16:25, 17:45, 18:25, 20:25, 21:25, 22:05
Enpresa: EuskoTren
Oharrak: 1: Aizarnazabaldik pasatzen da; 2: Larunbatetan Aizarna-zabaldik pasatzen da

AZPEITIA-ZESTOA-ZARAUTZ
Astegunak: 6:40, 8:30, 10:40, 13:25, 15:10, 18:10
Asteburuak eta jaiegunak: 15:40, 18:10, 20:10
Enpresa: EuskoTren

AZPEITIA-ZUMARRAGA (hospitala)
Astegunak: 6:55, 8:25, 10:25, 12:25, 13:25, 14:25, 16:25, 18:25, 19:25
Asteburuak eta jaiegunak: 7:40, 8:40, 10:40, 12:40, 14:40, 16:40, 18:40, 19:40
Enpresa: EuskoTren

AZPEITIA-ERREZIL-TOLOSA
Astegunak: 6:55, 13:55
Asteburuak eta jaiegunak: 6:55, 11:10
Enpresa: EuskoTren

ITZULTZEKO

DONOSTIA-ZESTOA-AZPEITIA
Astegunak: 7:50, 8:50, 11:05, 12:05, 13:05 (1), 14:05 (1), 15:05, 17:30, 18:30 (1), 19:30 (1), 20:00 (3), 20:30
Larunbatak eta abuztuko astegunak: 8:50, 12:15, 14:30, 16:00, 18:00, 20:00
Igandeak eta jaiegunak: 18:00, 20:00
Enpresa: La Guipuzcoana
Oharrak: 1: Eskola egunetan 'Este'-tik pasatzen da; 3: Eskola egunetan soilik

BILBO-EIBAR-AZPEITIA
Astegunak: 10:30, 14:30, 21:00
Larunbatak: 9:30, 14:30, 21:00
Igandeak eta jaiegunak: 9:30, 12:30, 21:00
Enpresa: Pesa

LEIOA-BILBO-AZPEITIA
Astegunak: 13:00, 14:05, 18:00, 20:00
Enpresa: Piper Unibertsitate Elkartea

AZKOITIA-AZPEITIA
Astegunak: 6:30, 6:45, 7:00, 8:05, 8:15, 9:00, 10:00, 10:30, 11:00, 12:00, 13:00, 13:15, 13:45, 14:00, 15:00, 16:00, 17:00, 18:00, 19:00, 20:00, 21:00
Asteburuak eta jaiegunak: 6:45, 7:15, 9:15, 10:15, 11:00, 11:35, 12:15, 13:35, 14:15, 15:30, 16:15, 17:35, 18:00, 18:15, 20:00, 20:15, 21:15, 21:55
Enpresa: EuskoTren

ZUMAIA-ZESTOA-AZPEITIA
Astegunak: 6:00, 6:30, 7:00, 8:00, 9:00, 10:00, 11:00, 12:00, 13:00 (1), 14:00, 15:00, 16:00, 17:00, 18:00, 19:00, 20:00, 22:00
Asteburua eta jaiegunak: 6:35, 7:15, 8:15, 10:15, 10:55, 12:15, 12:55 (2), 14:15, 16:15, 16:55, 18:15, 16:55, 18:15, 19:15, 21:15
Enpresa: EuskoTren
Oharrak: 1: Aizarnazabaldik pasatzen da; 2: Larunbatetan Aizarnazabaldik pasatzen da

ZARAUTZ-ZESTOA-AZPEITIA
Astegunak: 7:15, 9:00, 11:15, 14:00, 16:00, 18:45
Asteburuak eta jaiegunak: 16:30, 19:00, 21:00
Enpresa: EuskoTren

ZUMARRAGA (hospitala)-AZPEITIA
Astegunak: 7:35, 9:30, 11:30, 13:30, 14:30, 15:30, 17:30, 19:30, 20:30
Asteburuak eta jaiegunak: 8:45, 9:45, 11:45, 13:45, 15:45, 17:45, 19:45, 20:45
Enpresa: EuskoTren

TOLOSA-ERREZIL-AZPEITIA
Astegunak: 9:30, 18:30
Asteburuak eta jaiegunak: 9:30, 12:00
Enpresa: EuskoTren

GARRAIO ENPRESEN EDO ELKARTEEN TELEFONO ZENBAKIAK

Aldalur	85 27 18
EuskoTren	15 06 77
La Guipuzcoana	85 11 59
Pesa	902 10 12 10
Piper Unibertsitate Elkartea	85 25 87
Taxiak	81 13 07

Azpeitiko merkatu txikiye

1. ETXEBIZITZAK
1.1. Saldu
1.2. Erosi
1.3. Errentan eman
1.4. Errentan hartu
1.5. Etxeak osatu
1.6. Bestelakoak

2. LOKALAK
2.1. Saldu
2.2. Erosi
2.3. Errentan eman
2.4. Errentan hartu
2.5. Bestelakoak

3. GARAJEAK
3.1. Saldu
3.2. Erosi
3.3. Errentan eman
3.4. Errentan hartu

4. LANA
4.1. Eskaintza
4.2. Eskaera
4.3. Bestelakoak

5. MOTORRA
5.1. Saldu
5.2. Erosi
5.3. Errentan
5.4. Bestelakoak

6. BIDAIAK
6.1. Europa
6.2. Mundua

7. DENETARIK
7.1. Saldu
7.2. Erosi
7.3. Errentan eman
7.4. Errentan hartu
7.5. Bestelakoak

deitu
15 03 58
e-maila:
uztarria@topagunea.com

- Partikularren iragarkiak doan dira. Gainerakoek, lerroko euro bat ordaindu beharko dute.
- Uztarriak ez du iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik.
- Aldaketak adierazi Uztarriari.

1. ETXEBIZITZAK

1.1. SALDU

- **Eliz kalea.** 19. zenbakian. Hirugarren solairua. Telefonoa: 617 74 67 84.
- **Enparan kalea.** 20. zenbakian. Lehen pisua. Telefono zenbakiak: 943 - 81 67 77 edo 943 - 81 68 12.

1.4. ERRENTAN HARTU

- **Azpeitian.** Etxebizitza bat hartuko nuke errentan Azpeitian. Egoera onean dagoena, eta modu onean eskaintzen dena. Telefonoa: 659 82 94 40.

2. LOKALAK

2.1. SALDU

- **Plaza Nagusia.** Lehen pisua, arkupetan. Telefonoa: 943 - 46 29 31.

3. GARAJEAK

3.1. SALDU

- **Garmendi.** 11. zenbakian. Telefono zenbakia: 943 - 81 04 45.

•Autoa salgai.
Fiat tipo 1.9 TD. Grisa. Recaro eserlekuak. SS-AS. Telefono zenbakia: 637 75 98 64.

•Autoa salgai.
Audi Coupe Quatro. Beltza. NA-AH. Telefono zenbakia: 687 31 65 08.

•Goizez lana.
Neska azpeitiar batek goizetan lana egingo luke. Telefono zenbakia: 616 31 04 40. Maider.

4. LANA

4.2. ESKAERA

- **Hizkuntzak.** Alemaniarrak alemaniera eta ingelera irakatsiko luke. Etxean bertan edo mugitzeko aukerarekin.Telefono zenbakia: 660 64 02 06.

5. MOTORRA

5.1. SALDU

- **Autoa.** Opel Calibra. 2.0.1. 16v. Full Equipe. 17ko hagunak. Orain gutxi margotua. Kaseta. Motor berria dauka. 2.700 kilometro bakarrik. Salneurria: 7.800 euro. Telefonoa: 661 62 62 60.
- **Autoa.** Peugeot 306 XR. 110 zaldikoa. Oso ondo zaindua. Salneurria: 4.000 euro. Telefono zenbakia: 609 61 57 85. Felix.
- **Autoa.** Lancia Delta. Gorria. SS-AP. Telefono zenbakia: 660 98 66 45.
- **Autoa.** Ford Escort. Zuria. SS-AM. Telefono zenbakia: 620 84 22 44.
- **Autoa.** Audi A3. TDI. 110 zaldi. NA-BC. Telefonoa: 699 70 65 35.

Langai
Euskal Lan Zerbitzua

Lan eskaintza bat interesatzen bazaizu, erreferentzia hartu eta eskatu informazioa zentro laguntzaile hauetan:
SERBILAN 943- 15 70 66
IRAURGI LANTZEN 943 - 85 11 10

- **Frantseseko irakaslea.** Azpeitian. Frantsesa menperatzea eskatzen da. Lan ordutegia arratsaldean. Erreferentzia zenbakia 95407/9.
- **Autoeskolako irakaslea.** Azpeitian. Sei hilabeteko kontratua eskaintzen da eta urtebeteko esperientzia izatea eskatzen da. Erreferentzia zenbakia, 96399/3.
- **Promotorea.** Eibarren. Supermerkatu batetarako, telefono mugikorreko produktuen promotorea. 18-33 urte artekoa izatea eskatzen da. Erreferentzia zenbakia 96936/3.
- **Promotorea.** Tolosan. Antzeko lanetan urtebeteko esperientzia izatea eskatzen da. Hilabeterako lan kontratua eskaintzen da. Erreferentzia zenbakia: 96879/3.
- **Estetikako komertziala.** Donostian. Antzeko lanetan bi urteko esperientzia izatea eskatzen da. Erreferentzia: 96245/3.

PILDAIN
inmobiliaria
Elizkale, 22 • Tf.943-812167 • pildain@jet.es

Otamendi
Bitxi Denda
Goiko - Kale, 4 - Tfnoa. 81 13 49

ZALDIKO

SALBE 15 943-151275
ESTETIKA ETA OPARIAK

KIRURI
K
JATETXEA
Loiola hiribidea, 24
LOIOLA - AZPEITIA
Tlfnoa.: 943 81 56 08
Faxa.: 943 15 03 62

LUBA
- AHOLKULARITZA FISKALA, LABORALA, KONTABLEA
- ASEGUROAK
- FINKEN ADMINISTRAZIOA
Enparan kalea, 30
Tel.: 943 15 75 25 Fax.: 943 15 72 75
e-mail: luba.ase@euskalnet.net

argazkiyek: Orkatz Kultur Elkartea

Inauterietako astelehen alaiak Orkatzen

ASTELEHEN KARNABALAK. Mozorro eguna da astelehena, goizez umeen txanda izaten da eta gauez helduena. Lehen mozorroen desfilea egin ohi zen gauez, baina gaur egun ez da egiten. Kalean tabernaz taberna ibili ohi da jendea mozorrotuta. Orkatz Kultur Elkartea orain dela lau bat urte tabernan argazkiak ateratzen hasi zen, eta ondoren erakusketa egiten dute Orkatzen bertan. Urtez urte arrakasta handiagoa du Inauterietako argazki erakusketak.


1

2

3







1. LANGILEAK.
Langile koadrila. Ezkerretik hasita, aurrean, Nerea Aranburu, Miriam Aizpuru, Ranjana Priya. Atzean, berriz, Magda, Ainhoa Aizpuru, *Txusemi*, Leire Juaristi eta Mireia Otaegi.

2. BI TXULOAK.
Bi txulo. Iñigo Orbegozo eta Ion Agirre ondo dotore biak ere.

3. HARRIJASOTZEN.
Joxe Luis Urkizu *Beltza*. Harriak ez du asko pisatzen, esku batekin altxatzeko!

4. HAURRA IHESI.
Haurra etxetik alde egin eta parrandan. Haurra Iñaki Errazkin da.

5. ORDU TXIKIAK.
Barraren atzean bapo lan egin ondoren, piratari heldu zaio lotarako garaia. Lo plantak egiten, Aitor Otaegi.

6. TXISKOLA.
ETBko programako Txiskola. Ondoren izenaren jabe egin da Zigor Urrestilla.



7. ERREZOAK.
Gotzainaren esanei adi. Gotzainaren paperean, Asier Aranbarri; moja, Joseba Orbegozo; betaurrekoduna, Ivan Raña; eta pirata, Aitor Otaegi.

8. SUKALDARIAK.
Sukaldari kuadrila, sukaldeko lanari utzi eta parrandan. Zein baino zein tripa handiagoarekin. Ezkerretik hasita, Patricia, Enar, Maite, Maite eta Inge.

MUTIKO BELTZARANA

Duela hamar urte, San Inazio batzuetan, mutiko gazte beltzaran bat ezagutu nuen kalean, maindire baten gainean zituen erloju eta larruzko kapelak saltzen ari zela. Kapela haietako bat izugarri gustatu eta egunero geratzen nintzen ezpain handi eta hortz zuriko gaztearen ondoan. Hitz egiten hasi ginen eta konturatzerako lagun egin. Erdara baldarra erabiltzen zuen eta noski, euskararik batere ez.

Urte berean edo agian urte bete lehenago, Mohamed eta Mustafa arabiarrei, gogoan dut, gurasoen etxetik hartutako ogi zatiak nola eramaten nizkien. Beti ondo hartua izaten nintzen edo horrela uste izan dut behintzat beti. Festak amaitu baino lehen, pultsera bana eman zidaten opari.

Arabiarren berririk ez nuen gehiago izan baina mutiko beltzarana hurrengo urtean ere toki berean topatu nuen. Jada, postu osatuagoa zeukan eta autoa, zaharra bazen ere. Eta ondo jandako gizonaren itxura zeukan. —Ezagutu nuenean askoz ere argalagoa zegoen—. Solasaldi luzeak izan genituen orduan, jarraian etorri ziren bost edo sei San Inaziotan bezalaxe. Euskara ederrean mintzatzen zitzaidan eta harrituta entzuten nion nik. Euskaltegian ikasi zuela esan zidan, hemen inguruko herri batean bizi zela, baina bere Senegal faltan botatzen zuela eta lehenago edo beranduago bertara itzuli nahi zuela. Bere bizi baldintzak erabat hobetu zirela jakin ahal izan nuen gero, eta ez dakit inoren ongizateagatik sekula horrenbeste poztu ote naizen. Euskal Herrian bezain ondo inon ez zutela hartu esan zidan behin, hemendik kanpora ere ibilia zela eta hemen bezain ondo inon ez zela sentitu.

Urte gutxian, gauzak asko aldatu dira ordea, eta Azpeiti aldaketa honen lekuko garbia da. Duela urte gutxi, bakarrak ziren horrekin edo, *de paso* zeudela pentsatuta, ez zitzaizkigun gehiegi axola. Arraza eta kolore ezberdinekoak alegia. Orain, gauzak asko aldatu direnean eta elkarbizitzarako aukera eskaini zaigunean, bada guztiongan zerbait, pausoa aurrera eman beharrean atzera eman arazten gaituena, gure eta etorkin direnen kalterako.

Aurrez aipatutakoak adibideak baino ez dira eta ez dute ezer frogatzen baina azalean bizitako pasadizuek, nor bere herrian atzerritar sentitzera nola bultza dezaketen demostra dezakete, pena handiz.

Gizakion intentzio naturala, inguruari egokitzearen aldekoa dela esango nuke, hau baieztatuko duen teoriarik ezagutzen ez badut ere. Eta ahalegin honek, borondateaz gain, inguratzen dutenen babesa behar du, elkarbizitza positiboa egingo bada. Hiri handiei beti egotzi izan zaie auzokatze eta taldekatzearen joera bultzatzen dutela eta lagun batzuekin gai honen inguruan solasean aritu eta gero, joera naturala horixe dela ondorioztatu genuen. Hiriak handiak dira ordea eta horrela bizitzea eramangarriagoa gerta daiteke, herrietan ez bezala. Gettoak gustuko ez baditugu, integrazioaren aldeko apustua egitea ezinbestekoa dela esango nuke eta gurea bezalako herri batean, lehenago edo beranduago denok egin beharreko zerbait izango da hau.

ETORKINAK ETA BERTAKOAK.

Inundik ez da astorik etortzen lau belarrirekin

Gure hizkuntza eta nortasuna mantendu nahi baditugu, etorkinekiko zenbat eta joera irekiagoa izan, orduan eta errazagoa izango da eta berdin alderantziz. Zerk egiten gaitu euskaldun? Hemen jaio izanak, abizenak...?

Bizipen txarrak ere asko dira baina baita auzokidearekin ditugunak ere! Beraz, kolore kontua baino, pertsona kontua gehiago dela esango nuke nik. Fobiek beldurrez betetzen dute gizakia eta beldurra gizakiaren etsairik okerrena izatera iritsi daiteke.

Proposa dezagun eztabaida ireki bat gai honen inguruan eta hurbildu ditzagun ikuspegi desberdinak. Xenofobia, beste hainbat fobiarekin batera, gainditu gabeko ikasgaia dugula esatera ausartuko nintzateke. "Ni ez naiz arrazista" esaten dugun bakoitzean,—sarritan seguru— pentsatu gero: "seguru?"



As.	At.	Az.	Os.	Os.	La.	Ig.
					1	2
3	4	5	6	7	8	9
10	11	12	13	14	15	16
17	18	19	20	21	22	23
24	25	26	27	28	29	30
31						

MARTXOAK 1 (larunbata)

- **ARETO FUTBOLA.** Lehen Maila: Jostaldi Kirolak-Arditurri. 16:30ean. Kiroldegian.
- **FUTBOLA.** Hirugarren Maila: Lagun Onak- UPV. 17:00etan. Garmendipen.

MARTXOAK 2 (igandea)

- **KROSA.** Krosa maila desberdineakoak. 10:00etan.
- **MUSIKA.** Udal Musika Banda eta Musika Eskolako haurrak. 11:00etan.
- **SOKAMUTURRA.** Zezena. 12:00etan. Plazan.
- **ARTZAI-INUDEAK.** Itsasi dantza taldeko artzainudeen kalejira kaleetan.12:30ean.
- **ARGAZKILARITZA.** XXIV. Kutxa Juan Antxieta Argazki lehiaketa izango da sokamuturraren inguruan.
- **SOKAMUTURRA.** Zezena. 16:30etatik 20:00ak arte. Herriko kaleetan.

MARTXOAK 3 (astelehena)

- **ZEZENAK ETA PONIAK.** Zezen txikiak eta poniak. Plazan. 10:30ean.
- **DESFILEA.** Haur mozorrotuen desfilea. 12:30ean.
- **HAUR JOLASAK.** Haur jolasak. 16:00etan. Olazko Amaren Plazan.
- **SOKAMUTURRA.** Zezena. Herriko kaleetan zehar 16:30etik 20:00ak arte.
- **ARGAZKILARITZA.** XXIV. Kutxa Juan Antxieta Argazki lehiaketa izango da sokamuturraren inguruan eta inauterietako giro berezia egokien jasotzen duen argazkia ere saritua izango da.
- **MOZORROAK.** Mozorro lehiaketaren sari banaketa.01:30ean. Plazan.

MARTXOAK 4 (asteartea)

- **SOKAMUTURRA.** Zezena.07:00etatik 09:30ak arte.
- **TXARANGA.** Herriko txarangaren kalejira. 10:00etan.
- **HAUR JOLASAK.** Haur jolasak. 16:00etan. Olazko Amaren Plazan.
- **SOKAMUTURRA.** Zezena.16:30etik 20:00ak arte. Kaleetan zehar.
- **ERREMONTEA.** Erremonteko partidak hasiko dira. 17:00etan. Izarraitz pilotalekuan.
- **ZEZENAREN HILETA.** Zezenaren hileta. Herriko kaleetan. 20:00etan.

MARTXOAK 5 (asteazkena)

- **ERAKUSKETA.** Martxoak 8rako kartel lehiaketara aurkeztutako kartel guztien erakusketa. Urolaldeko Emakumeen Taldeak antolatuta. Erakusketa martxoaren 12a arte irekita izango da. Ordutegia: astegunetan 17:30etik 20:00etara eta larunbatetan 11:00etatik 13:00etara. Betharrametako elizan.
- **KORRIKA BATZARRA.** Korrika batzordea. 19:00etan. Mikelats Euskaltegian.

MARTXOAK 8 (larunbata)

- **KONZENTRAZIOA.** Izarraitzpeko Sorginak deituta. 12:00etan. Plazan.
- **BERTSOLARITZA.** II. Erniarraitz Bertso Paper Lehiaketara lanak aurkezteko azken eguna. Lanak, Erniarraitz Bertsozale Elkartea, 265 postakutxa, 20.730 Azpeitia helbidera bidali behar dira.

MARTXOAK 9 (igandea)

- **SASKIBALOIA.** Lehen Maila: Jostaldi Kirolak-BKL-CAF. Kiroldegian.

MARTXOAK 10 (astelehena)

- **PINTURA.** Irati Goñiren, Garbiñe Vitoriaren, Ana Miren Ormazabalen eta Maider Bastidaren margolanen erakusketa. Martxoaren 28a arte erakusketa irekita izango da. Astelehenetik ostiralera 18:00etatik 20:00etara bitartean. Antxietan.

MARTXOAK 12 (asteazkena)

- **KORRIKA BATZARRA.** Korrika antolatzeko batzordearen batzarra. 19:00etan. Mikelats AEK Euskaltegian.

MARTXOAK 13 (osteguna)

- **GURASOEN TXOKOA.** Gurasoen Txokoa III. Hitzaldia Udaleko Gazteriak antolatuta. Gaia: Drogak. Prebentzioa haurtzaroan. Hizlaria: Gloria Martin, psikologoa. Hitzaldia gazteleraz izango da. 15:15ean. Ludotekan.
- **HITZALDIA.** Ekuadorreko emakume baten hitzaldia. Gaia: etorkinak. Parrokiko Mixio Taldeak antolatuta. 20:30ean. Azpeitiko Parrokian.
- **HITZALDIA.** *Nafarroa osoa/Euskal Herria: geure historia ezagutzen* hitzaldi sorta. Ikasberri Azpeitiko Ikastolak antolatuta. Gaia: Euskal erresumaren sorrera. Hizlaria: Erlantz Urtasun, historiagilea eta Nabarraldeko kidea. 20:30ean. Ikasberri Azpeitiko Ikastolako, lehen pisuko biltokian.

MARTXOAK 14 (ostirala)

- **BERTSO ASTEA.** Triki bertso poteoa Azpeitiko tabernetan. Erniarraitz Bertsozale Elkarteak antolatuta. 22:00etatik 24:00etara.

MARTXOAK 15 (larunbata)

- **MOTORRA.** Ikasberri IV. Rally Sprint-a. Ikasberri Kirol Elkarteak eta Lagun Artea Eskuderiak antolatuta. 15:00etatik 20:30tara. Errezil bidean.
- **ARETO FUTBOLA.** Lehen Maila: Jostaldi Kirolak-Transportes Lakunza. 16:30ean. Kiroldegian.
- **FUTBOLA.** Hirugarren Maila: Lagun Onak- A.Vitoria. 17:00etan. Garmendipen.

MARTXOAK 16 (igandea)

- **MENDIA.** Umeen Eskolarteko ibilaldi neurtua, Zarautzen. Lagun Onak Mendi Bazkunak autobusa antolatu du. 08:00etan plazatik.

MARTXOAK 19 (asteazkena)

- **KORRIKA BATZARRA.** Korrika batzarra. 19:00etan. Mikelats AEK Euskaltegian.

AIZPURU AUTOAK
PEUGEOT
Landeta Auzoa - Urrut.: 943 81 23 59

ODRIOZOLA ARDOAK
Julio Urquijo, 18
Tfnoa.: 850011
AZKOITIA
Iñaki Azpiazu, 5
Tfnoa.:15 13 16
AZPEITIA

ostadar optika
OPTOKIAK - OPTOMETRISTAK
Jose de Artetxe, 17
Tel. 943-810664
AZPEITIA
Ibai Ondo, 28
Tel. 943-850445
AZKOITIA

martxoak 22 (larunbata) • 22:30 • Kiroldegian

EGUNKARIA

PANTXOA ETA PELLOREN SAIOA. Euskal Eskola Nazionalaren eguneko ekitaldien inguruan Pantxoa eta Pello-ren kantaldia antolatu du Ikasberri Azpeitiko Ikastolak. Kantaldirako sarrerak salgai egongo dira Pastorkua, Zuhatz eta Jim Clark tabernetan eta ikastolan bertan. Aurrez 8 euro da sarrera eta bertan, 10 euro. Ikasleentzat 6 euro.

martxoak 23 (igandea) • 10:00 • Kiroldegian

AMUE

I SLALOM OPENA. Amue Elbarrien Kirol Elkarteak, burmuineko paralisia duten pertsonentzako Azpeitiko I Slalom Opena antolatu du. Open-a antolatzearen helburua jendeak elbarrien kirol mundua ezagutzea da. Xabier Madina azpeitiarra gaur egun munduko errekorraren jabe da.

- **BERTSO ASTEA.**
Maialen Lujanbioren eta Aitor Mendiluzeren hitzaldia Bertso Astearen baitan. Erniarraitz Bertsozale Elkarteak antolatuta. 21:00etan. Zestoako kultur etxean.

MARTXOAK 20 (osteguna)

- **HITZALDIA.**
Nafarroa osoa/Euskal Herria: geure historia ezagutzen hitzaldi sorta. Ikasberri Azpeitiko Ikastolak antolatuta. Gaia: Mendebaldeko lurraldeen galera. Hizlaria: Tomas Urzainki Mena, historiagilea eta Nabarraldeko kidea. Gazteleraz izango da hitzaldia. Herritar guztiei zuzendua. 20:30ean. Ikasberri Azpeitiko Ikastolako, lehen pisuko biltokian.

MARTXOAK 21 (ostirala)

- **BERTSO ASTEA.**
Xabier Amurizaren emanaldia Lazkao Txikiren bertsoak Bertso Astearen baitan. Erniarraitz Bertsozale Elkarteak antolatuta. 22:00etan. Azkoitian Floreaga ikastetxeko aretoan.

MARTXOAK 22 (larunbata)

- **URTEMUGA.**
Pasaiako sarraskiaren XIX. urtemugako ekitaldiak egun osoan zehar herriko kaleetan. 14:30ean herri bazkaria izango da azoka plazan.

MARTXOAK 23 (igandea)

- **MENDIA.**
Jaizkibelera mendi irteera eta ondoren sagardotegira bazkaltzera. Lagun Onak Mendi Bazkunak antolatuta. Autobusa plazatik aterako da. 08:00etan.

MARTXOAK 26 (asteazkena)

- **ODOL EMATEA.**
Odol emate eguna. Gipuzkoako Odol Emaileen Elkarteak deituta. 18:30etik 21:00etara. Anbulategian.
- **KORRIKA BATZARRA.**
Korrika antolatzeko Azpeitiko batzordearen batzarra. 19:00etan. Mikelats AEK Euskaltegian.

MARTXOAK 27 (osteguna)

- **HITZALDIA.**
Nafarroa osoa/Euskal Herria: geure historia ezagutzen hitzaldi sorta. Ikasberri Azpeitiko Ikastolak antolatuta. Gaia: Hego-ekialdearen konkista. Hizlaria: Jose J. LopezAnton, historiagilea eta Nabarraldeko kidea. 20:30ean. Ikasberri Azpeitiko Ikastolan.

MARTXOAK 29 (larunbata)

- **ARETO FUTBOLA.**
Lehen Maila: Jostaldi Kirolak-Urretxu. 16:30ean. Kiroldegian.
- **FUTBOLA.**
Hirugarren Maila: Lagun Onak- Sestao. 17:00etan. Garmendipen.
- **MARATOI-ERDIA.**
Azkoitia Azpeitia maratoi erdia. 16:30ean.
- **FESTA.**
Zapo Txoko gazte leluko ikastaroen amaierako jaia: musika, dantza eta luntx-a. 18:00etan. Zapo Txoko Gaztelekuan.

MARTXOAK 30 (igandea)

- **EUSKARA.**
Euskal Eskola Nazionalaren Eguna. Azpeitiko Ikasberri ikastolak Elkarteak antolatuta. Egun osoan.

Esteban Campos

Kaldererue

NEREA ARANBURU

"Pixket inder gehiyo hartu beherko luke kaldereruen festiek"

Esteban Camposek urtiek daramazki kaldererotan parte hartzen. Orain dala hamaike urte atera zan aurreneko aldiz, 1992 urtien, hain justu.

• Nolatan hasi zinen kaldereruetan erteten?

Orain dala hamaike urte, soziedadeko Estanisek proposatu zuen kaldereruetan ertetie. Gero danai planteatu zitzayoben ideie eta hogei lagun juntatu ginen parte hartzeko.

• Nolakuek ziren lehen urtietako kaldereruek?

Hasierako urtietan ez zuen jende askok erteten. Guri festa batzordekuek ertenez gero hamar mile duro emango zizkigutela esan eta animatu egin ginen ertetea.

• Nola prestatu zineten ateratzeko?

Lehenengo urte hartan karro zahar batekin erten genuen. Gero, hurrengo urtien berriye egin beher izen genuen. Oñatzen topatu genuen karro zahar bat eta hure berritu genuen. Karro hure astelehen gabien ere batzuek atera izen debe. Karrue berriye egin genunien, lehen urtietan *Loiola 91*-ko lokaletan gordetzen genuen eta azken urte hauetan, berriz, lehengo kuartel zaharrien.

• Urtero pertsona batzuk ere omentzen dituzue.

Bai, urtero Ardozaliek soziedadekuek kaldereruen egunien omentzen ditugu aurrez aukeratuteko bi lagun.

• Nola erabakitzen dezue zein omendu?

Hogei lagun elkartzen gera eta bakoitzek izenak botatzen ditu. Boto gehiyenak jaso dituben bi pertsona hoyek omentzen dire. Badaezpada hirugarren bat ere ateratzen degu, norbaitek atzea egiten badu ere. Bestela hirugarrena hurrengo omendutakue izeten da.

• Entsaiyuek ere egiten dituzue, ezta?

Urtero egoten dire entsaiyuek. Ni neu orain ez naiz juten. Hasiera batien, lehen urte haietan azaltzen ginen, orduen erten beher genuen danok juten ginen entsaiyuetara.

> "Lehenego urtien karro zahar batekin erten genuen. Gero, hurrengo urtien berriye egin genuen"

> "Egun osuen edukitzen degu lana. Erosketak egin, karrue ondo ipini eta bestiek afaiye prestatu"

• Nola antolatzen eta prestatzen dezue egune?

Egun osuen edukitzen degu lana egiteko. Bakoitzek bere lana dauke; batzuk erosketak egitea juten dire, beste batzuk karrue ondo ipintzera eta prestatzera, eta beste batzuk afaiye prestatzera: baratzuri zopie eta gixaue. Gaueko afaiyen lagun asko biltzen gera, lehen omendutakuek ere etortzen direlako.

• Ez al da galduko ohiture hau?

Galdu ez da egingo. Egiye esan, pixket inder gehiyo hartu beherko luke kaldereruen festiek. Jendie ere pixket hotza da hemen eta ez du erteten.

Nerea Aranburu

TXIKITEKO AMETSA. "Ametsa beti ondo bizitzie izen da. Karnabalakin lotuz gero, gure garaiyen gazterik lanien hasten ginen eta goizeko zezena ikustie zan gure nahiye"

Babesa
garte moda
beibi
babesa
DESBERDINDU ZAITEZ!!!
udaberria-udara 2003
Xanjuandei auzuen gatxauden!
Urbitarte, 9 ◆ Tel. 943 151369



Santi Lazkano Kirolak

AZKEN EGUNAK

aukera berezia zamarra eta galtzetan

Sare@ informatika
Telekomunikazio Zerbitzuak & Informatika

Eskaintzen ditugun zerbitzuak eta produktuak

Ordenagailuen eta portatilen salmenta
Markako PC-ak · Gure markako PC-ak · Portatilak

Informatika zerbitzu teknikoa
Zerbitzu Tekniko azkarra · Mantenu Kontratuak

Periferikoen salmenta eta konponketak
Multifuntzioak · Formatu handiko inprimagailuak · Laserrak

Sare informatikoen instalazio eta kudeaketa
Sareen diseinua eta muntaia · Sareen mantenua · Serbitzariak

Kontabilitate kudeatze programen ezartzea
Kudeaketa programak · Kontabilitate · Nominak

WEB orrien diseinua eta mantenua
MacroWeb 2002 Corporative · MacroWeb 2001 Tienda · MacroWeb 2001 Escaparate

Erregistratzaile, balantza eta TPVen salmenta

Informatika aholkularitza

Enpresetarako Telefoniako
zerbitzu guztiak

Azpeitia
Pablo VI 19 behea
943 157 321

Azkoitia
Julio Urkixo 10 behea
Telf: 943 85 36 60

Zarautz
Kale Nagusia 1 Be
Telf: 94313338

Banatzaile Ofiziala
Euskaltel